

# ek!

...eta kitto!

Euskara Elkartearen astekaria

2021eko abenduak 3 · 1208. zenbakia

## BABES BARIK LAGA GAITUZTE



T. Etxebarria, 1  
943 20 42 99



Gehien  
maite  
duzuna  
babestu!

### BIZI ASEGURUA

Informazio gehiago:  
[eukiseguros.com](http://eukiseguros.com)

### EUKi

ASEGURUAK

Gure familia beti  
babestuta egongo  
den **garantia**



**EIBAR**

HORTZ KLINIKA  
CLÍNICA DENTAL



Odontologia  
orokorra



Ortodontzia



Hortz zuritzea  
eta estetika

Haur  
odontologia



Protesi finkoa  
eta kentzekoa



Zirugia  
eta inplanteak



📍 San Agustin kalea, 4 behea ezkerrean  
20600 Eibar (Gipuzkoa)  
☎ 943 537 076 · 688 884 808  
✉ info@eibarclinicadental.com

# TOR Magoa

JASO GONBIDAPENAK  
...eta kitto! Euskara Elkartean



## ERREBAL PLAZIA

Abenduak 17

**17:30ean**

**Errebalgo markesina dala-eta**

Errebalgo plaza aurrian jarri daben autobus-geltokiko markesinia txiki-xegixa begittantzen jata. Autobus mordua gelditzen da han egunero, eta jende asko biltzen da. Lineako autobusez gain, Ikastolako hiru autobus be bertan gelditzen dira, eta eurixa egitten dabenian plazako aterpera juan bihar izaten dira umiak eta ume ez diranak. Eraikin berri bat egitterakuan hórrek gauzok kontuan hartu biharko lirakez, eta behin gauzak egitten hasitta, ondo egin. Beraz, dagokixonari eskatuko netsan gaixa aintzat hartzia eta markesinako estalpia haunditzia, lekua egon badago-eta.

M.I.I.

“Gure familiako argazki zaharrenak mende eta erdi badu. Hiru belaunaldi geroago, gaurko umeek bere haurtzaroko zenbat argazki erakutsi ahal izango diete euren bilobei? Digitaliki lortutako horietatik, zenbateko irudik iraugo dute hemendik 50/80 urtera? Ba gure argazki-fondoetan denbora eta dirua ez baditugu inbertitzen, gaur egun ditugun albumak modukoek eurena egin dute. Hemendik ez askora gure diskoak kaskartuko direlako, gure irakurgai optikoak iraugiko, programa eta biltzeko sistema berriekin gaur egungoek ez dutelako balioko. ‘Hodeiaz’ fiatu gaitezke akaso? Benetan? Hobe espabilitzen hastea; bestela, inoiz baino produkzio ikonografiko handiena izandako sasoiak ‘Belatutako Aroa’ bihurtu daitekeelako”.

JUAN AGIRRE, zutabegilea

“Urkullu lehendakaria eta biok %99,9an bat gatoz. Baina ez beti-beti. Biok elkarrekin joan berri gara esperimendu bat ikustera. Patxaranez, ardoz eta urez beteriko hiru tututan zizareak sartu zituzten. Ordu gutxiren buruan, patxaranez eta ardotan sarturiko zizareak hilda zeuden. Uretan murgilduak, bizirik eta kontent. Lehendakariak atera zuen ondorioa da alkohola kaltegarri dela. Nik atera nuen da, betiere neurrian bada, alkohola edaten duenak ez duela sekula zizarerik izango”.

ANDONI ORTUZAR, EAJ-PNVko presidentea

**Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera****NORA EZ DA.-** Noraezean. “Itxuan dabil nora ez da, txingor eta inbrizka artian”.**NOR BERE ONIAN EZ EGON.-** Lasai ez egon. “Ez nenguan nere onian, berriz osorik ikusi arte bialdu genduan gizona”.

Euskara Elkarte

**ARGITARATZAILEA**

...eta kitto! Euskara Elkarte

**HELBIDEA**

Urkizu, 11. 20600 Eibar

**TELEFONOAK**943 20 67 76 / 943 20 09 18  
603 598 285**FAXA** 943 20 28 72**ASTEKARIAREN E-MAILAK**erredakzioa@etakitto.eus  
komunikabideak@etakitto.eus  
publizitatea@etakitto.eus**ELKARTEAREN E-MAILAK**elkarte@etakitto.eus  
normalizazioa@etakitto.eus**ERREDAKZIO-KONTSEILUA**Ana Aizpurua, Ekhi Belar,  
Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez  
eta Yanire Sagredo**ADMINISTRAZIOA**

Marisol Uriarte

**KOORDINATZAILEA**

Ana Aizpurua

**ERREDAKZIO-BURUA**

Silbia Hernandez

**DISEINUA**

Maku Oruezabal

**MAKETAZIOA**

...eta kitto! astekaria

**ARGAZKI ARLOA**Maitane Campos eta  
Malen Illaramendi**HIZKUNTZA ARDURA**

Maider Aranberri

**PUBLIZITATEA**

Belen Ulazia

**TELEFONOAK**

943 20 67 76

**AZALEKO ARGAZKIA**

...eta kitto!

**BANAKETA-ARDURA**

Idoia Labado

**TIRADA**

8.150 ale

**INPRIMATEGIA**

GERTU koop. (Oñati)

**COPYRIGHT-A**

...eta kitto!

**LEGE-GORDAILUA**

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

(“...eta kitto!”k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)







## Infinitu itxurako eskultura “Ekonomia zirkularra modelatzen” erakusketan

>>> Armeria Eskolako irakasle eta ikasleek Gipuzkoako Foru Aldundiaren aintzatespena jaso dute, “Ekonomia Zirkularra modelatzen” eskultura erakusketaren hirugarren edizioan parte hartzeagatik. Hondakinak Prebenitzeko Europako Astean Gipuzkoako Foru Aldundiak ekintza ugari antolatu ditu, besteak beste eskultura erakusketa, eta Lanbide Heziketako ikastetxei parte hartzeko gonbidapena luzatu die.

Azaldu dutenez, “eskultura altzairuzko piezak birziklatuz

egin da eta infinitu forma duen zinta bati soldatuta dago, ekonomia zirkularreko hiru termino garrantzitsu adieraziz: birziklatu, birdiseinatu eta berrerabili”. Produkzioaren Programazioa Fabrikazio Mekanikoan eta Fabrikazio Mekanikoko Diseinua zikloetako bost kidek, Eneritz Busto, Daniel Patiño, Oier Eguren, Ismael Ruiz eta Jonathan Vizcaino ikasleek osatu dute Armeria Eskolako ikasle-taldea, Arrate Zubiaga irakaslearen ardurapean.

## Indarkeria matxista salatzekeo jarduera ezberdinak egin ziren azaroaren 25ean

>>> Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Egunaren harira hainbat ekintza egin ziren azaroaren 25ean eta, besteak beste, ekainean ehundutako piezekin jantzi zituzten Untzagako zuhaitzak, “indarkeria matxista salatzekeo eta indarkeria hori jasaten duten emakumei elkartasuna adierazteko ekintza sinboliko gisa”. Horrekin batera manifestazioa eta elkarretaratzea ere egin ziren. Irudi eta adierazpenak bideoan ikusteko QR kodea eskaneatu.



## Jendetzak eskatu zituen lan, pentsio eta bizitza duinak

>>> Oso jendetsua izan zen lan, pensio eta bizi baldintza duinen alde eguaztanean Eibarren egindako manifestazioa. Atzo pensioen erreformarako lege proiektua onartzea litekeena zela eta, Eibarren bezala beste toki askotan egin ziren mobilizazioak, horren kontra azaltzeko. Oraingo honetan Deba-

barreneko eta Debagoieneko herritarrek egin zuten bat Untzagan eta ibilbidearen zatirik handiena euripean egitea egokitu zitzaizkien, baina horrek ez zituen atzera bota. Pentsionistekin batera gazteak, feministak, sindikatuak, beharginak... irten ziren kalera, gu guztion esku-bideen alde borroka egitera.





## Euskaltzaindiak ohorezko izendatu du “Amatiño”

>>> Barixakuan Iruñeko udal-txean egin zen Osoko bilkuran izendatu zituen Euskaltzaindiak 19 urgazle eta 26 ohorezko berri eta bigarren horien artean dago Luis Alberto Aranberri “Amatiño” eibartarra. Urgazleei dagokienez, oraingo honetan, Gipuzkoakoak, Ipar Euskal Herrikoak eta Bizkaikoak baino ez dira izendatu, Arabakoak 2015ean izendatu baitziren, eta Nafarroako azken urgazleak 2016ko apirilaren 29an. Azken ohorezkoak, berriz, 2018ko apirilaren 27an izendatu ziren.

## “Eskubideak jokoa” kanpaina

>>> Eibar-Ermua Gurutze Gorriak Jostailu Hezitzailearen kanpaina hasiko du. Boluntarioen bitartez, SD Eibar Fundazioaren eta Eibar eta Ermuko Udalen laguntzarekin, jostailu berriak biltzeko kanpaina berri bat kudeatuko du, bazterketa-arriskuan daudenentzat.





El Correo	1.608.716 €
El Diario Vasco	747.535 €
Deia	558.126 €
SER	520.244 €
Gara	305.580 €
Berria	290.427 €
Nervion-Gorbea	224.765 €
Cope	174.256 €
Noticias de Gipuzkoa	171.731 €
Onda Cero	123.747 €
Noticias de Alava	113.645 €
Onda Vasca	73.238 €
Bizkaia Irratia	40.000 €
Radio Popular	25.254 €
7 Radio	22.729 €

## Jaurlaritzak COVID-19aren ondorioei aurre egiteko laguntzetatik kanpo utzi ditu ...eta kitto! eta beste hainbat hedabide

>>> Eusko Jaurlaritzak 5 milioi euro banatu ditu hainbat hedabideren artean "pandemiaren eraginari" aurre egiteko, baina beste hainbat komunikabideri ez dio ezer ere eman, tartean ...eta kitto!-ri. Laguntza hori gainerako euskarazko komunikabideei zabaltzeko eskatu du Hekimen Euskarazko Hedabideen Elkarteak.

...eta kitto! Euskara Elkarteak bat egiten du Hekimenek adierazitakoarekin: "Ez da ulertzen Jaurlaritzak laguntza hauek komunikabide jakin batzuetara soilik bideratzea. Are gehiago, pandemiaren hasieran egindako azterlanaren emaitzekin batera, euskarazko komunikabideetan pandemiaren ondorioak leuntzeko neurriak ere eskatu genituenean".

Covid-19ak eragindako pandemiaren ondorioak latzak izaten ari dira komunikabideen eremuan eta, noski, baita euskarazko hedabideen kasuan ere, ...eta kitto! astekaria barne. Hekimen Euskarazko Hedabideen Elkarteak argitaratu duen oharra dioen moduan, "ulergaitza egiten da aldizkari orokorrak, tokiko hedabideak,

espezializatuak, herri-telebistak... babes neurri horretatik kanpo uztea. Zer herri-eredu du buruan Eusko Jaurlaritzak dirua horrela banatzen duenean? Zer iritzi du ekosistema mediatikoari buruz?".

Eusko Jaurlaritzak egindako banaketa horretan, euskarazko komunikabideek %6,6 bakarrik jasotzen dute. "Euskararen normalizazioaren ikuspegitik euskarazko komunikabideen lana ezinbestekoa den heinean, ezin dira COVID-19ak eragindako ondorioen aurrean babesik gabe utzi, txertatu gabe utzi", esan dute Hekimen-etik.

### Txikien biziraupena jokoan

Pandemiak hedabide guztiak jo ditu gogor, baina egitasmo txikiak dira ondorioak gehien jasandakoenak; izan ere, txikiak dira bestelako diru sarreretara heltzeko arazo gehien dituztenak (publizitatea, publizitate instituzionala, dirulaguntza bereziak...). Komunikabide askorentzako egoera kritikoa da eta hainbat egitasmoren biziraupena jokoan dago. Txertoeekin bezala, lehentasuna zahurgarrienean izan beharko lukete.

"Zergatik lagundu handienak bakarrik, irismen-datueta oinarrituta? Zer komunikazio ekosistema sustatu nahi du Eusko Jaurlaritzak?" galdetzen dute Hekimenetik.

Euskarazko komunikabideek pandemia garaian ahalegin berezia egin dute, ez bakarrik informazio-gaitasunari eusteko, baizik eta gaitasun hori indartzeko. Ahalegin berezia, bakoitzak bere esparruan pandemiak eskatzen zuen neurriaren erantzuteko. Eta herritarrek ahalegin hori eskertu dute. Ikusi besterik ez dago pandemia garaian nola handitu den euskarazko komunikabideen kontsumo digitala. Horrela laguntza puntualek edota berrikuntzari lotutako inbertsioek euskarazko komunikabideak kontuan hartzen ez badituzte, zaila izango da aurrera egitea.

Honegatik guztiagatik, Hekimen elkartetik Eusko Jaurlaritzari eskatzen zaio COVID-19ak eragindako kalteak arintzeko helburuz onartutako laguntza hauek euskarazko gainerako komunikabideei ere zabaltzea.

## AUTUAN

### EKITEKO DIRULAGUNTZAK

Janbide ekintzaileri bideratutako dirulaguntzen deialdia abian jarri du aurten ere. Deialdi honetan, 30 urtetik beherako gazteei eta emakumei arreta berezia eskaini zaie, izan ere, dirulaguntzaren zenbatekoa hauentzat handiagoa da. Eskara aurkeztu nahi dutenek Debegeako bulegoetara eraman beharko dituzte eskaera-orria eta gainerako agiriak, abenduaren 10a baino lehen (bulegoa 09:00etatik 16:00etara zabaltzen da). Informazio gehiago [www.debegesa.eus](http://www.debegesa.eus) webgunean aurkitu daiteke edo, bestela, Enpresa eta Ekintzaitza sailarekin harremanetan jarrita (943 82 01 10 telefonoan edo [ekintzaitza@debegesa.eus](mailto:ekintzaitza@debegesa.eus) helbidean) eska daiteke.



### SAN ANDRES ZOKKETA

Jaixak Herrixak Herrixandako plataformak San Andres jaietarako egindako zokketan 098 zenbakia izan da saritua. Irabazlea ez bada agertzen, 529 zenbakia izango da ordezkia. Irabazlea izanez gero, Jaixak Herrixak Herrixandakoekin harremanetan jartzea eskatu dute antolatzaileek.







## Roberto Pérez Jauregi omenduko dute egunean udaletxean

>>> Abenduaren 9an, arratsaldeko 18:00etan, Eibarko Udalaren Batzar Aretoan, Eusko Jaurlaritzaren Memoria, Elkarbizitza eta Giza Eskubideen Gogora Institutuak eta Eibarko Udalak antolatuta, 1970ean polizia indarkeriaren biktima aitortua izan zen Roberto Perez Jauregiaren omenez ekimen bat gauzatu da.

Herritarren artean antolatutako Eibarko Memoria Taldeak dei egiten die eibartar guztiei “erreparazio historikoaren ekimen instituzional honetan partaide izateko”. Pandemiaren eraginez lokalaren eduki murriztapenei buruz hartu behar diren neurriak kontuan izanik, Gogora Institutuak joango direnei alde aurretik horren berri emateko eskatu du. Horretarako gogora.memoriahistorikoa1@euskadi.eus helbidera idatzi edo 94403134 telefono zenbakira deitu daiteke.

Eibarko Memoria Taldeak gogoratu nahi dutenez, “Roberto Perez Jauregi eibartarra 1970eko abenduaren 8an hil zen, 21 urte zituela, Eibarko herritarren aurka poliziak berbertatik egindako tiroen ondorioz. Tiro horiek modu baketsuan eta masiboan Burgoako Prozesua deiturikoarekin egin ziren herri-mobilizazioetan gauzatu ziren. Auzitegi frankista hartan, besteak beste, hiru eibartar agertzen ziren:

Enrique Gesalaga, Jon Etxabe eta Mario Onaindia. Burgoako prozesuak abenduaren 3tik 9ra iraun zuen, eta demokrata guztientzat erregimen frankista beraren aurkako herri-epaiketa bihurtu zen. Herriak lortu zuen antifrankista haiek ez exekutatzea, baina Eibarko manifestari gaztearen bizitza errugabeak ez zuen erreparaziorik izan”.

Datorren asteko oroimenezko ekitaldiarengatik Gogora Institutuaren eta Udalaren ekimena agurtzen dute: “Urrats bat dela uste dugu eta, horregatik, herritarrei dei egiten diegu omenaldiko ekitaldi instituzional honetara joan daitezten. Bere familiak merezi du”.

Eta, horrekin batera, orain dela urtebete Udaltzatzak hartutako erabakia aktibatzeko una dela uste dute: “Konponzailea izango litzateke, halaber, gure Udalak duela urtebete Osoko Bilkurak (2020-12-04) Roberto hil zuten Karmeldarren inguruko plaza (gaur egun izenik gabea) Memoriari eskaintzeko hartutako erabakia martxan jartzea, baita monolito bat jartzea ere, Eibarko herri osoak indar frankisten esku 1936ko bonbardaketatik hasi eta duela 50 urte arte, bere mobilizazioen ondorioz, jasan zuen eraso kriminala irudikatzen duen une historiko bat oroitzeko. Biktima guztien memoriarako plaza bat”.



## Banatu dituzte XVII. San Andres pintxo lehiaketako sariak

>>> San Andres egunean banatu zituzten Arrate Kultur Elkartek, Eibar Merkataritza Gune Irekiaren eta Udalaren laguntzaz, antolatutako XVII. San Andres pintxo lehiaketako sariak, Topalekuan. Pintxo onenaren saria Ongi Etorri tabernak eraman du, “Udazken zaporea” izenekoarekin. Bertako produktuekin egindako pintxo

onenari saria, berriz, Baratzek eraman du, “Bokata de bakalao” izeneko pintxoarekin. Publikoaren saria, berriz, Hirurok tabernak jaso du, “Xamura” izeneko pintxoari esker. Eta, horrez gain, pintxoak jan eta botua eman duten bezeroen artean zozketatutako Errigora-oren otarra Cesareo Azpilikuetak eraman du.

## Abenduaren 17an aurkeztuko dute Etxebizitza Asanblada, Kultur

>>> Deba bailarako Kontseilu Sozialistak “Etxebizitza Asanblada” aurkeztuko du abenduaren 17an, 19:00etan, Arrate Kultur Elkartaren lokaletan. Aurreratu dutenez, “etxebizitzaren auziari klase ikuspuntutik erantzuteko asmoz eta elkarrekin indarrak batzeko” jaio da asanblada, eta sare sozialetan bideoa zabaltzen hasi dira, aurkezpenerako aurrerapen gisa. Esaten dutenez, etxebizitzaren auziari modu eraginkorrean erantzungo dion eta langileen mesedetara egongo den tresna izango da asanblada, “izan ere etxebizitza oinarrizko beharra da langileontzat, soldataren parte handi bat hori eskuratzen bideratuz”. Gainera, pandemiaren eraginez arazo honek “langileentzat okerre-eragin duela” oso argi daukate. Krisiak, eros ahalmeneren



galera, alokairuen prezioak, hipotekak, etxe-kaleratzeak... Geroz eta larriagoak diren horrelako arazoei aurre egiteko “klase elkartasunez” erantzun beharko zaiola pentsatzen dute, eta horregatik animatu nahi dute jendea aurkezpen egunean Kultura joatera, proiektuaren inguruko xehetasun gehiago bertatik bertara jasotzeko.



## Armagintzaren Museoak hainbat jarduera eskainiko ditu abenduan

>>> Atzo zabaldu zuten Armagintzaren Museoan "Ondareari begira" argazki erakusketa ibiltaria eta urtarrilaren 9ra arte bisitatzeko aukera egongo da. Horrez gain, bihar Santa Barbara eguna dela eta, armaginen zaindariaren eguna ospatzeko Museoakaateak zabalduko ditu, nahi duten guztiek doan ikus dezaten. Eta Gabonetako apaingarriak egiteko tailerra ere antolatu dute. Parte hartzerantz animatzen direnek Eibar-ko tailerretan erabiltzen diren materialekin (malgukiak, torlojuak, zirrindolak, alanbrea,

soka, kartoia...) Gabonetako apaingarriak egingo dituzte. Abenduaren 11n izango da, 17:00etan, eta aurrez izena emateko 943708446 telefono zenbakira deitu edo museoa@eibar.eus helbidera idatzi daiteke (doako jarduera da). Eta, horrez gain, abenduaren 18an erakusketa iraunkorra ezagutzeko doako bisita gidatua eskainiko dute (17:00etan euskeraz, 18:30ean gaztelaniaz). Parte hartzeko aurretik izena eman beharko da, aipatutako telefono zenbakian edo helbide elektronikoan.

## Eskualde osorako zerbitzua emango duen aterpetxea zabalik

>>> Eguaztenean ipini dute martxan etxerik gabekoentzat aterpetxea, Karmeldarren eraikinean. Eskualde osorako neguko aterpea izango dena apirilera arte egongo da zabalik, 14 lagunentzat tokia dauka, eta ohea eta norberaren garbitasuna egiteko tokia eskainiko ditu eguraldi txarreko egunetan. Udalak jakinarazi duenez, lokalak egokituta daude dagoeneko eta hezitzaileak ere prest daude etxerik gabeko pertsonen jarraipena eta akonpainamendua egiteko.



## Jaso dute Urbat waterpolo taldearen otarra

>>> Urbat IKE waterpolo taldeak sanandresetarako zozketatu zuen otarra 2901 zenbakiari egokitu zitzaion eta zenbaki horren jabea Susana Etxeberria da. Argazkian, Iñigo Kortabarría klubeko presidentea daukazue, irabazleari otar ederra entregatzen. Zorionak eta on egina!



*Maria Luz  
Landa  
Mendikute*

2021eko abenduaren 2an  
hil zen, 93 urterekin

*"Ama. Amama. Birramama"*

*"Hamendik juan zara,  
baina betiko izango  
zaittugu gure bihotzetan"*

ETXEKUAK



FUNEUSKADI  
Grupo Azkora

FUNERARIA  
MUGICA  
Funeuskadi

TANATORIO EIBAR

TANATORIO CREMATORIO  
ELGOIBAR

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951  
www.funeuskadi.com

Eibar: Otaola, 27	Elgoibar: Xixilion, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)
Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20	Ermuako bulegoa: Marqués de Valdespina, 16

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao  
Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao



## Donostiako eta Eibarko euskara

Donostiako euskara eta Eibarkoa oso ezberdinak ziren.



Eibarko bi euskaltzale handienetakoak diren Juan San Martín eta Toribio Echevarria, Eibarko Klub Deportiboko lehen presidentea izan zen Jose Laskurainekin eta frantses batekin batera, Santimamiñeko kobazuloaren sarreran (1964). JUAN SAN MARTIN.



**Maritxu Olarra Olazagirre**  
(1928 – 2017)

Arrate auzoan azken 60 urteotan gertatutakoaren lekukorik handiena zen Maritxu. 1928. urtean jaio zen Donostian, Zabalegi baserrian (Aieten), baina hamabost urte besterik ez zituela, 1943an, Eibarrera joan zen zerbitzatzera Arrateko abadetxera, Don Pedro Gorostidi ezagunaren etxera. Don Pedro eta bere senideak zaindu zituen, Arrateko ostatuan zerbitzatu zuen, Arrateko elizako serora izan zen hainbat urtez, eliza alboko dendako arduraduna izan zen, Arrate Irratiaren sorrera ezagutu zuen... Don Pedoren iloba batekin ezkondu zen 1957an, Andres Egizadurekin, eta hiru alaba izan zituen.

## Maritxu Olarrari grabatutako pasarteetako baten transkripzioa

“[Donostian euskeraz egingo zenduen etxian?] Bai, gurasuekin euskeraz eitten genduan. [Eta Donostiatik hona etorri ziñanian?] Ba txapurria eitten naban. Eneee! Han “lehiua” esaten genduan “por ejemplo” eta hamen “bentania”, eta bueno. Gero ez bata eta bestia ondo. Eta oin be. [Problemarik eta ez zekazun aitzeko?] Ez, keba! Ez nakan. Gero Arraten be osabak eta beti, don Pedrok-eta euskeraz. Arrebiakin gehixao eitten naban erderaz, bera be Madriden egonda ta. Gero errezaio edo ez dakit ba ze pasatzen dan, nahi barik joaten zara erderara, ezta. Baiña euskeraz ondo ikasi genduan, gure gurasuak ez zekixen erderaz, ez zekixen-da. Halaxen da. Gure amak ikasi zaban nietuekin erderaz. Euseria beti, eta gero nietuak hasi zianian ba harekin ikasi zaban erderaz. [Zuri esaten zetsuen euskera rarua ta zekazula?] Bueno, nik, e..., kontaktzen ei eben: han hauxe esaten da ta bestia ta ene! Ta barre eitten zebe. Eske hain zan diferencial! [Eta lehen gehixao.] Bai, bai. [Oin telebisiñua ta...] Baiña orduan, bueno. “Padera” “por ejemplo” guk esaten giñuan zartaiñiari “padera”. Eta holan. Gauza danak diferencial”.





Hildelisa Arrizabalaga, Eibarko Udal Eskolako irakaslea, ikasleei klasea ematen.  
M<sup>a</sup> PILAR OLASOLO BILDUMA.

## Bilbora, erdara ikastera

Mutilek beraien ikastetxea zuten, eta neskek eskola bakarrik. Euskaraz egiten zuten dena, irakasleek ere bai. Elgetan inork ez zekien erdaraz. Bilbora eraman zuten erdaraz ikastera; Bilboko batzuek Elgetan “beraneatzen” zuten, eta urtebeterako joan zen haiekin. Baina bi urte egin zituen han. Etxeko lanak egiten.



**Genoveva Billar Eleizpuru**  
(1907)

San Joan errekaiko Izalde baserrian jaio zen 1907an, Bergaran. Bost bat urterekin, Elgetako Egoetxeaga baserrira joan zen bizitzera. Eibarrera ezkondu zen eta bertan eman ditu azken 78 urteak. Harategian egin zuen lan 40 urtez. Hala ere, Elgeta ez du ahaztu.

## Genoveva Billarri grabatutako pasarteetako baten transkripzioa

“Mutillak euren kolegixua euken ta neskek eskolia bakarrik. (...) [Ta euskeraz egitten zenduen eskolan?] Bai, euskeraz, dana euskeraz [Klasiak be bai?] Bai, dana, orduan euskeraz dan-dana [Orduan, Elgetan inork ez eban egitten erderaz?] Ez, ez, ez! Ni Bilbora eruan ninduen erderaz ikasteko [Zenbat urtekin?] Hamazazpi, hamasei. (...) Elgetan egoten ziran beraneatzen Bilboko batzuk, gu oiñetakuak janztera juaten giñan, tabernan, Martintxoneko esaten zotsen, ta han beraneatzen eben Bilboko batzuk. Ta gurian, gurasuak esan eutsenian ni etartzia nahi ebela erderaz ikasteko... eneee! “Geuk eruango dogu”. Y así me llevaron, urtebeterako, eta gero urte bi egin nittuan”.

**A** HOTAN

# Aurten baDa azoka

Abenduaren 3tik 8ra egingo da Durangoko Azokaren 56. edizioa; aurrez aurreko 220 stand eta online denda uztartuko ditu, 'baDA!' lelopean. Leire Urbeltz sortzaile iruindarrak egin du aurtengo kartela, 'Desipuindegia' izenburupean. Urbeltzek Azokako lehenengo edizioak izan ditu gogoan, garai horretako irudien *revivalismoa* eginez.



|| Aurten Azokarik bada? Askok egin digute galdera.

Bai noski, baDA!, iragarri zuen Gerediagako presidente Nerea Mujikak. 220 erakusmahai egongo dira abenduaren 4tik 8ra ikusgai. Azoka aurrez aurrekoa izango da, bai, baina Gerediaga Elkarrekin hainbat neurri hartu ditu azoka Eusko Jaurlaritzaren osasun neurrietara egokitzeko. Landakon eta Plateruenean, Ahotseneko kontzertuetan, sartzeko aldeztu aurretik izena eman behar da [durangokoazoka.eus](http://durangokoazoka.eus) webgunean eta azaroaren 29an hasi ziren zerrendarako izenak jasotzen. Landako gunean 1.200 bisitariko bost txanda izango dira egunero, ordu eta erdiko bisita egin ahal izateko. Barruan, maskara jarrita ibili beharko da, eta ezingo da ez jan ez edan. Online denda aurten ere martxan egongo da abenduaren 3tik 7ra izena emateko webgunean bertan.



50 kontzertu Plateruenean

Kontzertuei dagokienez, antolakuntzak iragarri du Ahotsenean 50 kontzertu eskainiko dituztela eta emanaldi guztiak Plateruenean izango direla, 11.00etatik 22.00etara bitartean. Sarrera doakoa izango da eta ez da beharrezkoa izango aldeztu aurretik izena ematea. Horrekin batera, jakinarazi dute Ahotsene-

ako zuzenekoak zein Azokako Areto Nagusiko ekitaldiak webgunean ere jarraitu ahal izango direla *streaming* bidez.

Musika ez ezik, Durangoko Azokak diziplina askotariko egitaraua berreskuratuko du aurten; solasaldiak, proiektzioak, arte eszenikoak, umeentzako ikuskizunak, ekitaldiak...

Debabarreneko Komunikazio Taldeak (DKT) jasotako informazioaren arabera, aurten, bailarako idazle, musikari eta argitaletxeek ondutako 23 liburu eta disko baino gehiago izango dira azokan; tartean, eleberririk, poema liburuak, album ilustratu bat, itzulpenak, eta baita rock, folk eta jazz diskoak ere. Ondoko orrialdean dituzu horietako zenbait ale.

DKT: Drogeteniturrri (Ermua, Mallabia), ...eta kittol (Eibar), Pil-pilean (Soraluze), Barren (Elgoibar, Mendara) eta Berriketan (Deba).



## DEBABARRENEKO UZTA

### DEBA-ITZIAR

- Nerea Loiola Pikaza: *Epizentroa* (Erein argitaletxea). Liburuaren aurkezpena: Abenduak 4 (larunbata), 17:00etan, azokan bertan.
- Goizane Aizpurua Ibañez: *Izarak* (Alberdania argitaletxea).
- Iñigo Lopez Simon: *Bilboko etxola batean* (Elkar argitaletxea). Debako Udalak eta Elkarrek antolatutako Tene Mujika bekaren fruitua da liburua.
- McOnak taldea: *Bitakora* (Mauka Musikagintza). Abenduaren 6an Ahotsenea gunean (Plateruena) kontzertua.
- Huntza taldea: *Ezin ezer espero* (Mauka Musikagintza).

### EIBAR

- Su Ta Gar: *Sua komikia* (Alex Tello eta Julen Ribas).
- Ibon Muñoa: *Gure Ama-Lur feminista da* (Ataramiñe)
- Bixente Martinez: *Txoriak buruan eta ibili munduan*. Abenduaren 6an, Ahotsenean.

### ELGOIBAR

- Jasone Osoro: *Asteburu bat eskiatzen* (Goazen saila, Alai), *New York, New York!* (Goazen saila, Alai) eta *Festa* (Elkar).
- Uxue Alberdi: *HILL, album ilustratua* (Elkar).
- Danele Sarriguarte: *Walden* (Henry David Thoreau autorearen lanaren itzulpena, Katakarak) eta *Kapitalaren lan-tegi ezkutua* (Nancy Fraser filosofo estatubatuarraren lanaren itzulpena, beste hiru itzultzaileekin elkarlanean, Susa).
- Ander Mujika: *Orain entzungo duzun hau* (Bidehuts). Anariren diskoan kolaboratu du.

### ERMUA + MALLABIA

- Txabi Arnal: *Berta Berezi* (Erein argitaletxea) eta *Tatxani handiaren azken trukoa* (Elkar argitaletxea).

### SORALUZE

- Ansorena & Senperena: *Euskal Danbolinaren Aroak* (Gaztelupeko Hotsak).
- Gorka Gaztanbide: *Txikizio kuadrilla* (Gaztelupeko Hotsak).
- Juan De Diego: *Grebalaria* (Errabal Jazz).
- Noa Lur, Ander Garcia: *Gaur* (Errabal Jazz).
- Aldapeko Basque Latin jazz: *Iri barrenetik* (Errabal Jazz).
- Plana, Forts, Viñolas: *Nucli Trio* (Errabal Jazz).
- Jon Urrutia: *Piano Solo* (Errabal Jazz).





Julen Bollainek bere bakarkako lehen liburua argitaratu du. EKHI BELAR

<<< **JULEN BOLLAIN** • Ekonomialaria >>>

# “Gaur egun lanak ez du bizitza duina bermatzen, beste alternatiba batzuk bilatu behar ditugu”

Julen Bollain ekonomialari eibartarrak ‘Renta básica: una herramienta de futuro’ izenburua duen liburua aurkeztu zuen atzo Portalean (salgai dago liburu-dendetan). Liburuaren helburua gure eredu ekonomikoa eta soziala birpentsatzea eta modernizatzea da, eta bere iritziz oinarritzko errenta erreminta aproposa izan daiteke horretarako. Bollainek, gainera, doktore-tesia amaitu berri du, cum laude lortuz.

## **Doktorego-tesia aurkeztu berri duzu. Nolako lana izan da zuretzat?**

Prozesu astuna eta luzea izan da. Karrera gauza batzuk ikasten dituzu, masterrean gai batean espezializatzen zara, baina doktorego-tesia askoz ere espezializatuagoa da. Argi neukan zer nahi nuen aztertu: oinarritzko errentaren bideragarritasun ekonomikoa EAEn.

## **Eta bideragarria da?**

Bai, EAEn bideragarria da oinarritzko errenta finantzatzea.

## **Nola?**

Errenta eta aberastasunaren birbanaketa egon beharko litzateke. Aberatsena den %20ak zerga gehiago ordaindu beharko litzuzke eta, horrela, beste %80aren egoera hobetuko litzateke. Pobrezia desagertu-

ko litzatekeela esatea nahiko esanguratsua da. Gainera, proposamen hau martxan jarri gero, aztertutakoaren arabera, EAE Europako herrialde berdinzaleena izango litzateke eta, logikoki, baita mundu mailakoa ere.

## **Proposamen hau errealitate izateko, nork bultzatu beharko luke aldaketa?**

EAEn herri-ekimen legegile bat dago martxan, Eusko Legebiltzarrean oinarritzko errentaren inguruko eztabaida egon dadila bultzatzeko. 8.000 sinadura lortu dituzte orain arte eta 10.000 behar dira. Lortuz gero, alderdi politikoek oinarritzko errentaren alde edo kontra dauden, etorkizunerako posible ikusten duten eta momentu honetan ez... eztabaidatu beharko dute.



Azkenean, oinarrizko errenta ezartzeko borondate politikoa behar da. Alderdi politikoak boteretik gero eta urrunago egon, gero eta atxikimendu handiagoa dute oinarrizko errentarekiko, eta alderantziz. Paradoxikoa da, baina horrek esan nahi du jendea oinarrizko errentaren aldekoa dela ikusten dutela. Hori diote inkestek ere: gero eta jende gehiagok ezagutzen du oinarrizko errenta eta horren alde daude. Europarren %68k oinarrizko errentaren alde bozkatuko luke.

### **Ez da kopuru baxua.**

Errealitatea aldatzen doa eta errealitatearen eraldaketara moldatzen ez diren herrialdeek arazoak izango dituzte. Hainbat arronka ditugu aurretik. Esaterako, lan merkatuaren eboluzioa. Etorkizunean enplegu suntsiketa ematen bada, egoerari erantzun batzuk eman beharko dizkiogu. Paradigma ezin da izan gaur egun dugun kontratu soziala, non enpleguak bermatzen dizun eskubide batzuk edukitzea edo ez.

### **Hortik abiatzen da zure liburua? Erronka berriei erantzun berriak emateko gogotik?**

Tesiaren hasieran oinarrizko errenta eta errenta minimoa alderatzen ditut. Errenta minimoek oso emaitza kaskarrak erakutsi dituzte azken urteotan eta koronabirusarekin are gehiago. Oinarrizko errentak, ostera, errenta minimoak dituen arazoak ondo gainditzen ditu. Gainera, egin ditugun azterketen arabera, ekonomikoki bideragarria da. Kontua da oinarrizko errentari buruz berba

## **“Oinarrizko errentarekin ez duzu enplegu baten beharrik zure biziraupena bermatzeko”**

## **“EAEn bideragarria da oinarrizko errenta finantzatzea. Horretarako, aberatsena den %20ak zerga gehiago ordaindu beharko lituzke”**

egiterakoan beti aipatzen dela pobrezia, errenta minimoa zein txarra den, eta abar. Liburuarrekin, defentsiban egon ordez, erasora jokatu nahi izan dut. Iruditzen zitzaidan oinarrizko errenta erreminta potentea izan daitekeela etorkizuneko erronkei erantzuna emateko.

### **Zeintzuk dira etorkizuneko arronka horiek?**

Krisi ekologikoa, lan-merkatuaren krisia eta zaintzaren krisia. Oinarrizko errentak pertsonen existentzia materiala eta askatasun-kota batzuk bermatzen ditu oinarrian, baina arronka batzuekin topo egiten badu, erreminta potentea izan daiteke egoerari aurre egiteko.

### **Nola?**

Adibidez, krisi ekologikoaren ondorioz, Afrikako toki batzuetan lurrak ez dira emankorrak izango eta, horregatik, ez dute jatekorik izango, ezta edatekorik ere, eta horrek migrazioa ekarriko du. Bestetik, itsasoaren maila metro bat igotzen bada, Bangladesheko %50 ur azpian geratuko da. 160 mi-

lio biztanle dituen herrialdea izanik, zer egingo du jende horrek guztiak? Horrek errekurtso-lehia sortuko du mundu mailan (nork hartuko du lurra, materia, ura, elikagaiak...). Beraz, krisi ekologikoari buruz berba egiten dugunean, mundu mailako bakeari buruz gabilta. Zer dago horren guztiaren atzean? Eskasia krisia. Planeta finitua dugu eta nahi mugagabeak ditugu. Horri aurre egiteko, desazkundera da irtenbide bat, baina liburuan aipatzen dudana bezala, badaude beste teoria batzuk (Kate Raworthen ‘erroskila ekonomia’, adibidez). Desazkundera ezarri gero, nola eusten diogu ordena sozialari? Izan ere, gaur egun dugun mentalitatearen aurka doa. Orduan, dugun aukera bakarra daukaguna birbanatzea izango litzateke, eta oinarrizko errenta gakoa izan daiteke hazkunderaren eta krisi ekologikoaren dilemari irtenbidea emateko. Bestetik, oinarrizko errentak gaur egungo eredu kapitalistak duen ikuspuntu produktibistarekin apurtzen du. Oinarrizko

errentarekin ez dugu enplegu baten beharrik izango gure biziraupena bermatzeko.

### **Zenbait tokitan ezarri dute oinarrizko errenta, proba pilotuak egin dira... Baina nahikoa da herrialde jakin batean ezartzea edo mundu mailan hedatu beharko litzateke?**

Herrialde batean ezarrita ere, bertan funtziona dezake. ‘Sputnik une’ antzeko batean gaude, hau da, lasterketa espazialaren sasoian bezala. Oinarrizko errenta ezartzen duen herrialdeak abantailak izango ditu besteekiko. Europa mailan ezartzeak demaseko onurak izango lituzke. Hemendik kanpo, zenbait herrialdetan hasi dira oinarrizko errentari buruz berbetan, Mexikon adibidez. Han hezitzen eta sortzen den giza kapital asko AEBra joaten da. Era berean, azken urteotan EAeko jende asko joan da Europako beste herrialde batzuetara lan egitera, hemen ez zutelako aukera nahikorik euren bizitza-proiektua aurrera eramateko. Oinarrizko errentak kapital-ihesa ekidindo luke.

### **Zer gertatuko litzateke arronka berriei erantzun zaharrak ematen jarraitzen badugu?**

70. eta 80. hamarkadetan enplegua bizitza duina bermatzeko erreminta egokia zen, baina gaur egun ez. Ikuspuntu horrekin jarraitzen badugu (ezkerreko alderdi eta sindikatu batzuek egiten duten bezala), errealitatetik kanpo egongo gara guztiz. Gaur egun lanak ez du bizitza duina bermatzen eta beste alternatiba batzuk bilatu behar ditugu.



## **Iñaki Irusta Telletxea**

2021-11-25ean hil zen

**“Elvisen antzera, mokorrari eraginez... betiko gogoratuko zaitugu”**

ZURE KUADRILLA



EUSKAL ONDARE INDUSTRIALA,  
ERAKUSKETAK, KULTUR EKITALDIAK,  
BISITA GIDATUAK...  
BIZITZAZ BETERIKO MUSEOA.  
**Parte hartu nahi duzu?**



## Nondik gatozen ezagutu, nora goazen jakin ahal izateko

Errementarien garaitik XIX. mendera arteko industriaren bilakaera ezagutzeko museo aparta da Elgoibarkoa. Aire bidezko uhal eta poleen bitartez osatutako transmisio sistema erabiltzen zuen mekanizazio tailer batetako giroa zintzoki erreproduzitzen du. Museo bizia da, makina guztiak martxan ikus daitezke. Estatuan bakarra.

Ez galdu esperientzia ikusgarri hau bizitzeko aukera!

### Bisitak



Bisita librea, gidatua, audiogidarekin,  
taldeentzat, ikastetxeentzat egokitua,  
enpresentzat, familientzat ...





### Antzinako ogibideak



Galtzear dauden antzinako ogibideen zuzeneko erakustaldiak.

### Kultur ekitaldiak



Euskal Herriko arte diziplina ezberdinak: kontzertuak, hitzaldiak, dantza ikuskizunak...

### Zientzia eta teknologia tailerrak



10-14 urte bitarteko gazteei zuzendutako Bizilabe tailerrak, erronka errealekin.



### Espazioen alokairua

Museoko espazioa erabilera anitzetarako alokatzeko aukera dago: bilerak, ekitaldiak, aurkezpenak, ikusentzunezkoak, telebista saioak etab. Leku paregabea, nortasun propioa duena!

T. 943 74 84 56

Makina Erreminta Museoa  
Elgoibar, Gipuzkoa  
[www.museoa.eus](http://www.museoa.eus)  
[museoa@museoa.eus](mailto:museoa@museoa.eus)





# Betikoa, gertukoa eta euskaraz

Merkataritzan euskara sustatzeko kanpaina aurkeztu zuen Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak azaroaren erdialdean. “Merkataritzan Euskaraz” izeneko kanpainaren helburua tokiko merkataritzan euskararen erabilera sustatzea eta merkataria nahiz bezero euskaldunak aktibatzea da eta, asmo horrekin bat eginik, Eibarren ere ‘Eskatu eskaini euskaraz. Betikoa. Gertukoa’ kanpaina ipini da martxan.

**E**ibarko Udalak, ...eta kitto! Euskara Elkartek eta Eibar Merkataritza Gune Irekiak (EMGI) bat egin dute merkataritzan euskararen erabilera sustatzeko eta merkataria zein bezeroak aktibatuz abiatutako kanpainarekin.

Merkatarien parte hartzea berebizikoa da ‘Eskatu eskaini euskaraz. Betikoa. Gertukoa’ kanpainan. Euren ekarpena baliagarria da herriko denda eta tabernetan euskararen erabilera areagotzen laguntzeko, eta zenbait dendarekin berba egin dugu kanpainari nola ekiten dioten jakiteko.

## Umea, euskara moda bat baino gehiago

Betikoa ari bagara, herrian badugu berba hori zer den ondo islatzen duen denda bat: Umea. “60 urte inguru daramatza martxan dendak”, diosku Umeako Norak. “Amamak zabaldu zuen denda, gero tia eta ama ibili ziren, eta ondoren ni hasi nintzen”, gehitzen du.

Tradizio handiko denda da Umea, baina sasoi berrietara egokitzen jakin du, betiko xarma eta gertutasuna galdu barik. “Gaur egun, erosketak egiteko dauden modu berriekin zaila da betiko bezero finkoak edukitzea, baina orain arte egindako ibilbideak eskaintzen digun baliok plus bat ematen digu, gauzak asko aldatu diren arren”, dendariaren ustez.

Beste toki batzuetan aurkitu ez daitezkeen produktuak eskaintzen saiatzen dira Umean. “Gaur egun, mundu globalizatu honetan, zaila da edozein gauza ez aurkitzea, baina hemen gauza bereziak lortzeko aukera ematen dugu”, dio Norak. Eta eibartarron eskura, gainera. “Hemen gertutasuna eskaintzen dugu eta eibartarren eskura gaude. Azkenean, erosketak herritik kanpo egiteak prezio bat du, ekonomikoa eta baita denborari dagokionez ere”, bere ustez.

Gertuko tratua eskaintzeaz gain, Umeak euskara sustatze-

## Merkatarien parte hartzea berebizikoa da ‘Eskatu eskaini euskaraz. Betikoa. Gertukoa’ kanpainan

ko asmoa erakutsi du beti eta horregatik egin du bat ‘Eskatu eskaini euskaraz. Betikoa. Gertukoa’ kanpainarekin. “Batzuetan, kalean euskaraz egiten ez didan jendea dendara etortzen da eta euskaraz jarduten dugu”, aitortzen digu Norak. “Batzuetan, parean duguna euskalduna dela ez jakiteagatik, gaztelarrera jotzen dugu, nahiz eta biok euskaraz jakin. Horregatik da garrantzitsua lehen berba euskaraz egitea, euskaraz jar-

dutera eraman gaitzakeelako. Azkenean, askotan ez dakizu nor den euskalduna eta nor ez”, Norak dioenez.

## Lahidalga, pausoz pauso euskararen erabileran

Umea dendatik pauso gutxitara, Lahidalga zapata-denda dugu. Bertan Beak jaso gaitu, atsegin handiz. Dendak urtebete darama zabalik Errebal kalean, Arragueta 10 urte pasa ondoren.

Eibarko bezeroak izateaz gain, herritik kanpokoak ere baditu Lahidalgak. “Neurri berezietako zapatak eskaintzen ditugu, eta Bilboko edo Donostiko jendea etortzen da”, diosku Beak. “Horrez gain, gertuko tratua eskaintzen saiatzen gara, Interneten edo denda handietan eskuratzen ez duzun tratua. Bezeroen beharrak entzuten saiatzen gara eta erraztasunak ematen dizkiegu erosketak egiteko orduan: dendara ezin badute etorri, zapatak etxean probatu ditzateke; dendan nahi





Arregui-Dominguez arraindegian 'Betikoa. Gertukoa' kanpainarekin bat egin dute.



'Betikoa. gertukoa' kanpainarekin euskararen erabilera sustatu nahi dute erosketak egiten direnean.

beste zapata probatu daitezke...”, gehitzen du.

Dendariak aipatu digunaren arabera, jendeak euskaraz zein gazteleraz egiten du dendan. “Nor bait sartzen denean ‘kaixo, zer moduz’ esanez gero, beste pertsonak euskaraz badaki, normalena euskaraz egitea da”, diosku. “Bestela, gaztelerara jotzen dugu”, aitortzen du.

Azkenean, gaitasunak zerikusia izan arren, borondate kontua da. “Adibidez, euskaraz egiten jakin gabe ere, gutxienez berba batzuk euskaraz

egitea (kaixo, agur, eskerrik asko) ondo hartzen da”, bere iritziz.

**Arregui-Dominguez arraindegia, euskararen freskotasuna** Goizak biziak izaten dira Bidebarrieta kaleko Arregui-Dominguez arraindegian (Ego Gainen beste lokal bat dute), baina Marimarrek tarte bat egin digu ‘Eskatu eskaini euskaraz. Betikoa. Gertukoa’ kanpainari buruz berba egiteko.

Berak gaztetatik egin du lan arraindegian, “40 urte inguru”, eta bere ustez bezeroek

## Umea eta Lahidalga dendetan eta Arregui-Dominguez arraindegian egon gara merkatarien iritzia jakiteko

eskertzen dute urteek ematen duten konfiantza eta gertutasuna. “Azkenean, arraina nahiko produktu delikatu da eta garrantzitsua da bezeroei konfiantza ematea”, azaldu digu Marimarrek. “Gu, behintzat, produkturik onena ematen saiatzen gara eta, horretarako, gertuko hornitzaileengana jotzen dugu. Adibidez, arrainak Ondarrutikekartzan ahalegintzen gara, ahal den neurrian. Orain ez dago arrantzale asko Ondarrun, baina tira. Bestela, Bilbora jotzen dugu eta han jatorri ezberdinetako produk-

tuak aurkitzen ditugu, baina beno, aukeran gertukoa ekartzen dugu”, diosku saltzaileak.

Arregui-Dominguez arraindegia Bidebarrietan duen lokalean Marimar da euskaraz egiten duen saltzaile bakarra, baina arraindegia euskararen aldeko jarrera osoa izan du betidanik. “Euskaraz egiten ez dakitenek berba batzuk egiten dituzte gutxienez, eta ni saiatzen naiz euskaraz egiten ahal bezain beste”, dio Marimarrek.

Arraindegiko saltzaileak ere ondo azpimarratzen du lehenengo berba euskaraz egitearen garrantzia. “Askotan, lehenengo berba euskaraz eginez gero, bezeroa euskaraz hasten da jo eta su”, dio barrez; gazteleraz eginez gero, osteraz, ez litzateke horrela gertatuko, bere iritziz.

‘Eskatu eskaini euskaraz. Betikoa. Gertukoa’ kanpainak ondo funtzionatzea espero du Marimarrek. “Nire iritziz, euskaraz geroz eta gehiago egin, askoz hobea”, dio zintzo. “Batzuetan ohitura kontua izaten da eta horrelako kanpainak ohiturak aldatzeko balio izaten dute, nahiz eta keinu sinpleekin hasi”, gehitzen du. ■



## Dantza masterclassa eta kontzertua ekarriko ditu Gipuzkoan Gazte Tour ekimenak abenduaren 11n

**G**ipuzkoan Gazte Tour, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gazteria Zuzendaritzak 12 eta 25 urte bitarteko gazteentzat antolatzen duen aisialdi aktibo eta parte-hartzaileko zirkuitu kulturala berriz abian da, iaz pandemiaren ondorioz geldialdia izan eta gero. Abenduaren 11n Eibarren egingo den Gipuzkoan Gazte Tour programako bosgarren jardunaldia aurkeztu zuten aurreko astean Jon Iraola alkateak, Isaac Palencia Foru Aldundiko Gazteriariko zuzendari nagusiak eta Ander Curiel Udaleko gazteria zinegotziak.

Azaldu zuten, Arrasaten, Zumarragan eta Andoainen 1.800 gazte baino gehiagoren parte-hartzearekin egindako saioen ondoren, azaroan eta abenduan beste hiru hitzordu izango dira Hondarribian, Eibarren eta Erreterian.

Eibarkoa bosgarren jardunaldia izango da eta egunerako kartela “askotarikoa” da, “eta aldeztatik aurretik eta elkarbanatu da, sare sozialen bidez, herriko gazteen gustuak bertatik bertara ezagutzeko. Saio bakoitzean lehen maila-

ko artistak daude, masterclass berriak, eta baita herriko talentu gazteen erakustaldiak ere”.

Abenduaren 11n, goizeko 11:30ean, gazteek masterclass bat izango dute Claudia Rierarekin (‘Fama a bailar’), Ipurua kiroldegian. Masterclass-ean parte hartzea doan da, baina aldeztatik aurretik izena eman beharra dago [www.eibar.eus](http://www.eibar.eus) web orrian dagoen formularioa beteta (abenduaren 8ra arteko epea dago).

Eta arratsaldeko saioan, berriz, 18:00etatik aurrera kontzertua egingo da Coliseo antzokian: Julen Leturiondo artista eibartarrak zabalduko du saioa eta Ainhoa Larrañaga eta Anne Lukin abeslari eta konpositore iruindarrak arituko dira ondoren. Kontzertuetarako sarrerak dagoeneko salgai daude, 5 eurotan, Kutxabank-en eta Coliseoko leihatilan (astelehen eta barikuetan, 17:30etik 19:30era).

### Masterclassa Claudia Rierarekin

Claudia Riera Vidalek 26 urte ditu eta Lleidakoa da. 8 urterekin hasi zen dantzan eta lehiaketetan oso emaitza onak lortu

zituena. 2018an, Movistarren “Fama a Bailar” programan parte hartu zuen, eta irtetean dantzari gisa hasi zen Lola Indigoren bideo klipetan, eta bira egin zuen Espainian eta Latinoamerikan. Gainera, Shakirarekin egin du dantza Davis Copan, eta Manuel Carrasco, Pastora Soler edo Blas Cantoren bideo klipetan parte hartu du, besteak beste. Gaur egun Lola Indigorekin jarraitzen du eta bere aktore ibilbidea ere hasia du.

### Kontzertua Coliseo antzokian

Julen Leturiondo 20 urteko eibartarraren proiektu musikala da “Julen”. Hainbat taldetan urte luzez musikan aritu ondoren, Julenek bakarkako bere proposamen artistikoa aurkeztuko du.

Ainhoa Larrañaga (Hernani, Euskal Herria, 2000) gaur egun Madrilan errotuta dagoen abeslari eta aktore profesionala da. 2019an hasi zen bakarlari gisa egin zuen lehen proiektu musikala, “Eskuminak” izeneko, Iker Laurobarekin elkarlanean ekoiztitako abestiek. Azkenik, 2020an kaleratuko du lehen albuma, proiektuaren izen berekoa.

Gaur egun D’Straperlo Inc. diskoetxearekin lan egiten du, eta musika berria lantzen ari da Chickjuarez ekoizle mexikarrarekin batera.

Eta Anne Lukin Iruñeko interprete eta konpositorea da, 18 urte besterik ez zituela Operación Triunfoko entzuleak txunditurik laga zituen bere ahots talentu izugarriarekin eta, batez ere, konposatzen dituen kantu samurrekin. Zalantzarik gabe, etorkizunean zeresan handia emango du.

Bere bira, “Empezar” izeneko, kantautore gazte eta talentudun honen ahots artistikoaren aurkikuntzara egindako bidaiaren pertsonala da eta, dagoeneko, 15 milioi entzule baino gehiago liluratu ditu, besteak beste, honako single hauekin: “Quién Eres”, “Lento” edo “Volver a Mí”. Bene-benetako kontzertua eskaintzen du, hurbila eta egiazkoa, formatu txikian pentsatua edukiera eskusibotarako, abestien bidez Anneren nortasuna ezagutzeko aukera ematen duena.



Ikuskizuna albumari izena ematen dioten 10 abestiek eta berak idatzitako eta argitaratu gabeko beste kantu batzuek osatzen dute; albumenerako Zahara, Miss Caféina eta Gorka Urbizu (Berri Txarrak) izan ditu lankide. “Empezar” birak gazte honen lanaz gozatzeko aukera eskaintzen du, indie-pop eszena nazionalen erreferente diren musikari handiek lagunduta.





## Mugak arakatu eta arte bihurtu

Viviane Straubek 'Muga' izeneko erakusketa zabalduko du hilaren 17an Portaleko erakusketa aretoan eta urtarrilaren 16ra arte egongo da zabalik. Alemanian jaiotako artista eibartarrak pandemiaren ondorioz ezarri diguten mugen inguruan hausnartu du, herriko mugak arakatzuz. Horrela, apirilaren 23an ibilaldia egin zuen Eibar inguratzen duten mugetaraino eta bidean jasotakoa batu du erakusketa honetan.

**P**andemiaren ondorioz, hiru astez Eibartik irten ezindageratu ginen. "Pandemia hasi zenetik mugak jarri dizkigute begien aurrean eta horren inguruko hausnarketa egitea izan da nire asmoa", diosku Vivianek telefonoaren beste aldetik. Arte Ederrak ikasten dihardu Leioan eta, ondorioz, Bilbon egoten da astean zehar, baina berak dioen bezala, "Eibar da nire lurraldea".

Klasean argazkilaritza-lan bat egin behar zutela aprobeztatuta, buruan bueltaka zuen gaia lantzea pentsatu zuen, "baina ez nuen argazkilaritzan lan soila egin nahi, errealitate-landu nahi nuen". Horrela, Eibarko mugak zeintzuk diren aztertu eta herriko mendebaldeko mugan, iparraldean, ekialdean eta hegoaldean ibili zen, "aurrean ditugun eta etengabe mugitzen diren, gogaitzen eta erdiitsu uzten gaituzten mugak ezagutzen".

Apirilaren 23an mendiko botak jantzi eta argazki-kamera eskuan, Eibarko mugetan zehar ibilaldia egin zuen Vivianek. 40 kilometro inguru egin zituen 11 ordutan (ibilbidea goiko irudian ikusi daiteke eta Wikiloc-

en dago eskuragarri, artearen eta bizitzaren arteko mugak gaindituz). "Zoragarria izan zen", diosku pozik. "Errealitate-landu nahi nuen, eta gertatzen ari denaren inguruan protesta egiteko eta konponbide bezala balio izan zidan", gaineratzen du.

**Lau argazki eta dama-taula bat** Mugez berba egiteaz gain, bideari buruz hitz egin nahi du erakusketan Vivianek. "Mugak argazkien bitartez egongo dira ikusgai (lau argazki: iparraldea, hegoaldea, mendebaldea eta ekialdea), paretan proiektatuta, ez nuelako nahi gorputzik edukitzea. Zerbait birtuala izatea nahi nuen, mugak gure buruan birtualak diren bezala. Argazkiak goitik behera daude eginda eta lausoak dira, nahita, etengabe mugitzen eta aldatzen diren mugek eragiten diguten miopia islatzeko", diosku artistak.

Bidean jasotakoa, oster, beste modu baten ekarri digu. "Erakusketaren erdian, dama-taula antzeko batean, bidean bildutakoa dago jasota. Zianotipoen (urdin koloreko kopiak egiteko argazki-prozedura) bitartez bidean bizitakoa kontatzen dut.

**"Ez nuen argazkilaritzan lan soila egin nahi, errealitate-landu nahi nuen"**

Zianotipian, landare bat gainean jartzen baduzu, landarean aztarna zehatza ikusiko duzu", azaldu digu bere asmoen aurre-rapen gisa.

### Artea errealitate

Performancea klaserako sortu zuen hasiera batean, baina bertan kontatzen duenak guztioi eragin digu eta Eibarrekin lotura zuzena du. Beraz, arrazoi guztiak batzen ditu Portaleko erakusketa jaso dezan. Vivianerentzat lehen aldia da Portaleko areto nagusian, nahiz eta bere argazkiak herriko beste zenbait tokitan egon diren ikusgai. "Kokojaten estudioan eta tabernetan erakusketak egin izan ditut", diosku. "Oso



pozik nago erakusketa honekin eta, era berean, urduri", dio barrez. "Azkenean, Eibarrri buruzko proiektua da eta hunkitu egiten nau Eibarren erakusteak".

Vivianek txikitatik izan du artista sena eta, artearekin lotura zuzena ez duten unibertitate ikasketak egin arren, orain dela hiru urte eskaini zigan elkarrekin Arte Ederrak ikasteko gogoia zuela esan zigun. Esan eta egin, gaur egun arte ikasketak egiten dihardu. "Artea errealitate moduan ikusten dut orain eta, egitea posible ikusten dudanez, buru-belarri egiten du horretan lan", aitortu digu. ■



Josu Agirre  
JOSU AGIRRE

## An elephant in the room

Metafora bezala *gelan elefante bat* dagoela esaten dugunean, oharkabean pasatzen den baina, aldi berean, zeharo agerikoa den egia nabarmena bertan daukagula esan nahi dugu.

Askotan eztabaidatu nahi ez dugun baina begi-bistakoa den arazo edo arrisku bat adierazteko ere erabili daiteke. Pentsa, adibidez, familia arteko bazkarietan. Inork atera nahi ez duen gaia, baina denbora guztian denek nolabait somatzen dute hor dagoela, aurrez aurre.

Beste adibide bat. Aldizkari batean ETako komando bati laguntza emategatik kondenatua izandako preso ohi bati egindako elkarrizketa luzea irakurtzen dut. Bertan kazetariak, kartzelan bizi izandako esperientziaren inguruko hainbat galdera egiten dizkio elkarrizketatuari, eta honek bere esplikazioak ematen ditu. Hala ere, hain zuzen ere espetxera eraman zuen gertakariaren inguruko aipamen bakar bat ere ez dut aurkitzen. Ezer ere ez, ez galderen artean ezta erantzunen artean ere, eta ni behintzat gelako elefantearekin akordatzen naiz, uneoro gainera.

### “Elefanteak gelan egoten jarraituko du, baldin eta erakunde publiko eta gizarte zibiletik bereziki gizonezkoei zuzendutako mezu zehatzagoak bidaltzen ez badira”

Pasa den astean justu, oraindik handiagoa iruditzen zaidan beste elefante bat etorri zitzaidan burura, eta azaroaren 25ean ospatzen den “Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna” rekin du zerikusia.

Egun hori dela eta, erakunde, gobernu, instituzio, sindikatu, elkarte eta norbanakoek gizartean dugun arazo potolo honen inguruko hainbat eslogan eta mezu bidaltzen dituzte. Mezu asko dira eta nik ez ditut guztiak entzun. Hala ere, iruditzen zait plazaratzen direnen artean, ia guztiak emakumei soilik –modu orokorrean– helarazten zaizkiela. Esaten zaie salaketak jarri behar dituztela, biolentzia egoerak ez dituztela zergatik jasan, eskubideak dituztela, informatu behar direla, erasoan aurrean erantzun behar dutela... eta abar. Oso ondo.

Baina, biolentzia hori nondik dator? Espazio urrunetik akaso? Nork praktikatzen du emakumeen kontrako indarkeria? Nork jaso beharko lituzke mezu gehienak? Badakit “indarkeria matxista” espresioa ere erabiltzen dela, baina ez da hain argia.

Egia agerikoa da, eta elefanteak gelan egoten jarraituko du, baldin eta erakunde publiko eta gizarte zibiletik bereziki gizonezkoei zuzendutako mezu zehatzagoak bidaltzen ez badira.



Iokin Elortza  
IOKIN ELORTZA

## Artritis eta artrosia

Gaixotasun horiek, oso ezagunak izanik ere, ez ditugu askotan ondo ezberdintzen eta nahastu egiten ditugu. Sintomak nahiko antzekoak izanik, artikulazioen gogortzea eta mina, ez dakigu ondo noiz ari garen batzaz edo besteaz.

Saiatuko naiz gaur, luzatu gabe eta ahalik eta zehatzen, bien arteko ezberdintasunak azaltzen.

Artrosia gaixotasun degeneratibo bat da, adinarekin eta beste faktore batzuen eraginez (menopausia, obesitatea, mugimendu mekanikoak...) sortzen dena. Artikulazioak babesten dituen kartilagoa desagertzen doa, hezurrek beraien artean talka egiteraino.

Artritis aldiz, gaixotasun inflamatorioa da, eta artikulazioak babesten duen mintz sinobialaren hanturagatik sortzen da. Bere jatorria ezezaguna izanik ere, arrazoi genetiko eta infektiosoen lotzen da.

Bi horiek dira 50 urtetik gorako pertsonen artikulazioetan ematen diren gaixotasun nagusiak eta, biak kronikoak izanik ere, sufritzen dituztenek ondo dakite neguko hotzekin sintomak areagotu egiten direla.

Argi utzi behar da, hala ere, hotzak ez dituela gaixotasun hauek okertzen, baizik eta sintomak areagotzen ditu soilik. Hotzarekin artikulazioetan odol isuria murrizten da eta, horren eraginez, mina eta artikulazioen gogortasuna areagotzen dira.

Gaixo bakoitzean hotzak eragin ezberdina izan arren,

orokorra da nolabaiteko sintomen areagotzea, baina badaude sintoma horiek ahalik eta leunen igarotzeko zenbait gomendio.

Adibidez, artikulazioak ariketa arin baten bitartez egunero mugitzea, dutxan artikulazioei ur beroa botatzea, bero zuzena jartzea (manta elektrikoak, hazien poltsak...), masajeak, artikulazioak erropekin hotzetik ondo babestea, edo, behar denean, analgesikoren bat hartzea.

Ez da negua garai ona gaixotasun hauek pairatzen dituzuentzako, animo eta zaindu.

### “Hotzarekin artikulazioetan odol isuria murrizten da, eta eraginez, mina eta artikulazioen gogortasuna areagotzen dira”





# VI. GILDA LEHIAKETA EIBARREN

ABENDUAK



14

15

16



**HERRITARREK  
AUKERATUTAKOA  
150€**

TABERNETAN  
BOZKATZEKO KUTXAK  
ETA ORRIAK EGONGO  
DIRA

**EPAIMAHAIAREN SARIA  
150€**

EPAIMAHAIKIDEAK:  
MIREIA ALONSO  
JOSU MUGERZA  
RUBEN ETXANIZ



BOZKETAN PARTE HARTZEN DUTEN BEZEROEN  
ARTEAN ASTEBURUKO EGONALDIA ZOZKETATUKO DA  
BI LAGUNENTZAT.



# VI. GILDA LEHIAKETA

EIBARREN  
ABENDUAK

14

15

16

AGUIÑASPI

URKIZU, 22



AMETSA

T. ETXEBARRIA, 2



BAISI

URKIZU, 11



BANAKA

CALBETON, 26



BARATZE

BIDEBARRIETA, 39



EZDOK-ZAIZOI

B. SARASKETA, 1



GURIDI

UNTZAGA, 3



JANTAEDAN

T. ANITUA, 20



O' JAYS

UNTZAGA, 8



ONGIETORRI

T. ETXEBARRIA, 21



SKAPE

URKIZU, 17





**ARKUPE**

ISASI, 2



**BACOLEKU EGO GAIN**

EGO GAIN, 4



**BACOLEKU URKIZU**

URKIZU, 11



**BIRJIÑAPE BERRIA**

T. ETXEBARRIA, 16



**BOSSA**

EGO GAIN, 7



**DOS DE MAYO**

T. ETXEBARRIA, 19



**KONTENT**

EGO GAIN, 6



**KOSKOR**

CALBETON, 6



**KULTU**

ZULOAGATARREN, 3



**SU BEROA**

BISTA EDER, 11



**TRINKETE**

ERREBAL, 24



**TXOKO**

UNTZAGA, 10



Fatiha Khanoussi Nadorren hazi zen, Maroko iparraldean. “Melillatik hurbil”, Fatihakesan digunez. Nadortarrak berbereak dira gehien bat, Fatiha den bezala. “Arabiarrekin alderatuz ohitura, kultura eta hizkuntza ezberdinak ditugu”, azaldu digu. “Beti egin behar izan dugu gure eskubideen alde (Euskal Herrian euskaldunekin gertatzen den antzera). Lehen gatazka gehiago zegoen, baina gaur egun harreman ona dugu arabiarrekin. Hori bai, berebere gehienak European bizi dira, Marokon daudenak diruaduten berbereak dira”, gehitzen du.

### Lur gorri emankorra

Fatiharen jaioterrian, Nadorretik ordubetera dagoen herrian, “lurra gorri-gorria da”, bere esanetan. “Oso ona da elikagaiak landatzeko, oso lur emankorra delako”, azpimarratzen du. Fatihak han pasa zuen haurtzaroa. “Zoriontsu”, berak dioenez. “Ume gehienek bezala, asko jolasten genuen. Adibidez, lurrean bideak egiten genituen bolatxoekin lasterketak egiteko, bolak paretera botatzen jolasten genuen, egurrezko panpinak egiten genituen... Alde handia dago gaur egungo umeek jolasten duten jolasekin”, bere iritziz. Ondo daki berak, bost seme-alaba dituelako.

### Senarraren heriotza

Fatiha Marokon ezkondu zen eta zoriontsu bizi zen Nadorren, baina senarraren heriotzak bere bizitza irauli zuen. “Senarra hil ondoren, urtebetez jarraitu nuen bertan bizitzen, baina zaila egiten zitzaidan aurrera egitea bost seme-alabekin”, esan digunez. Bere familia gehiena Euskal Herrian bizi zen, ahizpa bat izan ezik, eta Eibarren oroitzenak atzean lagatzeko aukera gehiago izango zuela pentsatu zuen. “Herriak harrera ezin hobea eskaini zidan, beti sentitu naiz ongi etorria hemen. Euskaldunak maite ditut, oso pertsona onak dira, beti laguntzeko prest”, bere ustez. Hala ere, Marokotik Euskal

# Oroitzapenak atzean

EKHI BELAR



“

”

“Fatiha naiz, Marokoko berbera”

“Fatiha naiz, Marokoko berbera”

Herrira aldaketa handia somatu du, batez ere hizkuntzaren aldetik. “Poliki-poliki gaztelania ikasten nabil eta seme-alabek euskaraz egiten dute. Beraz, euskara ikasten hasiko naiz ni ere”, aitortu digu.

### Te zalea

Eibarren bizitza berria hasi arren, ez ditu guztiz atzean laga bere jaioterriko ohiturak. Adibidez, Fatiha ezin da bizi tea edan barik. “Egun batean terik ez badut edaten, buruko mina edukitzen dut”, diosku irribarrez. “Txiki-txikitatik edan izan dut eta oso ohitura indartsua da gurean”, azaldu digunez. Te berdea edan zalea da Fatiha eta, bere zorionerako, Eibarren te ona aurkitzen du. “Arabiarren dendetan Marokoko produktuak erosi daitezke eta han edango nukkeen tea edaten dut hemen”, diosku. Bakoitzak bere erara prestatzen du tea eta Fatihari azukre barik prestatzea gustatzen zaio. “Gero, bakoitzak bota dezala nahi duen azukre kantitatea”, iruzkintzen du.

### Marokora itzuli?

#### Ez, eskerrik asko

Fatiha orain dela lau urte etorri zen Eibarrera eta harrezkero ez da Marokora itzuli. “Eta ez dut itzuli nahi, senarraren oroitzenak bakarrik etortzen zaizkidalako burura”, onartzen digu. “Seme-alabek hemen dute euren bizimodua eta oso pozik daude. Bat Madrilen bizi da, bestea Beasainen eta txikiak Eibarren”, dio Fatihak. Bera momentuz ezin da herrialdetik irten, baina aukera edukita ere, argi du beste herrialde batera joango litzatekeela Marokora itzuli aurretik. “Adibidez, Turkiara joango nintzateke turismo egitera”, diosku. Bestetik, EPAN dihardu ikasten eta oso pozik dago bertan. “Hona iritsi eta berehala hasi nintzen EPAN. Aukera zoragarria da. Irakasleek asko laguntzen digute eta asko ikasi dut urte hauetan. Beraz, hemen jarraitzeko gogotsu nago”, amaitzen du.





## Hasi gara Gabonetarako prestatzen

Ospatu ezin izan diren San Andres jaien atarian, herriko kaleak Gabonetarako girotzen hasi dira. Aurreko asteaz geroztik, hainbat kaletan ipinita dauden argiak pizten dira iluntzero, oraindik nolakoak izango diren ez dakigun aurtengo Gabonak gerturatzen ari direla gogoraraziz. Hala ere, aurten ere pandemiak baldintzatuko ditu jaiak eta, oraingoz behintzat, ez dago argi Gabonetarako antolatu ohi diren beste jarduerak egin ahalko diren ala ez. Bien bitartean, abenduaren 18rako bigarren eskuko azoka antolatu du Udalak.

**A**urreko barixakuan piztu zituzten Gabonetako argiak, Udaleko eta Eibar Merkataritza Gune Irekiko ordezkarien parte-hartzearekin Errebal Plazan egindako ekitaldian. Aurtengo argiztapenaren barruan, udaletxeko fatxadan eta Ibarkurutze plazan hainbat apaingarri jarri dira, baita zuhaitzak apaintzeko argiak ere Untzaga plazan, jubilatutako etxearen inguruan, Ego Gainen eta Urkizun. Errebal Plazan, berriz, Gabonetako argiztapenaz gain zuhaitz berri bat ipini dute. Gabonetako argiekin girotuko dituzten kaleak hauek dira: Toribio Etxebarria, Zuloagatarren, San Agustin, Julian Etxebarria, Errebal, Bidebarrieta, San Juan, Calbeton eta Plaza Barria, Isasi, Juan Gisasola, Arragueta, Estaziño, Ego Gain, Bistar Eder, Ifarkale eta Eulogio Garate.

Horretarako aurrekontua aurten 57.500 eurokoa da. Udalak 46.000 euro ordainduko

ditu eta gainontzeko 11.500 euroak, berriz, Eibar Merkataritza Gune Irekiak eta Eusko Jaur-laritzak ordainduko dituzte. Udalak eta EMGI-k Gabonetako kanpainarako antolatuko dituzten beste jarduerak, bestalde, datozen egunotan jakinaraziko dituzte, "pandemiaren bilakaeraren arabera" zehazten joango dira eta.

Horrez gain, Gabonak gerturatzen daudela eta, Udalak bigarren eskuko azoka antolatu du abenduaren 18rako, "herri-tarrak kontzientziatzeko, hau da, objektuek bigarren bizitza bat izan dezaketela eta beste batzuek berriz erabili ditzaketela erakusteko". Azokaz gain, umeentzako bi tailer egingo dira, material birziklatuekin Gabonetako apaingarriak sortzeko.

Tailerretako bat 3-6 urte bitarteko umeentzat izango da (heldu baten laguntza izan beharko dute) eta bigarren tailerra 7 urtetik gorakoentzat

### Udalak eta EMGI-k antolatu ohi dituzten bestelako jarduerak oraindik zehazteke daude

izango da. Tailerrak goizeko 11:00etan hasi eta 13:30 inguruan amaituko dira eta 25 minutuko iraupena izango dute. Plazak mugatuak izango direnez, bost txanda egongo dira aukeran, 11:00etatik 13:00etara bitartean. Txanda Errebal Plazan bertan hartu behar da, hilaren 18an.

Erabilitako objektuak merkatuan saltzeko, bi aukera egongo dira: nahi duenak postu edo mahai bat erreserbatu dezake, azoka egunean norberak zuzenean gauzak saltzeko eta, bestela, saldu nahi diren erabilitako objektuak (10 gehien jota) gordailu-zerbitzuan laga daitezke, antolakuntza-taldekoek horiek saltzeko. Aukera bietako edozeinetan parte hartzeko, ezinbestekoa da alde zuzenetik erreserba egitea eta adinez nagusia izatea. Hitzordua hartzeko telefono zenbakia 943670249 da eta izena emateko epea abenduaren 13an itxiko da. ■



## Emakumezkoen errugbi taldeak jokatu gabe irabazi zuen Sant Cugatzen

>>> Etxeko taldeak anbulantziarik ez zuelako zelaian, horregatik eman zieten partidua galdutzat kataluniarrei eta Cristina Guntinen taldeari garaipena adjudikatu zioten, 0-21eko emaitzarekin. Emakumezkoen Ohorezko Mailako liga nagusia inoiz baino borrokatuagoa dago denboraldi honetan eta dagoeneko ez dago talderik partidurik galdu ez duenik. Txapela zeinek jantziko duen oso zabal dago eta eibartarrak ere hor daude, borroka horretan. Une honetan Majadahondak lideratzen du sailkapena, 27 punturekin,

Eibar bigarren da (22rekin), Sevillako Corteva Cocos eta Complutense Cisneros datoz ondoren (21ekin) eta Pozueloko Olympicok 20 ditu. Bost talde, beraz, titulu bakararren bila. Asteburu honetan ez dago partidurik eta hurrengo jardunaldia abenduaren 12an jokatuko da: hor Eibarrek SANSE azken sailkatua hartuko du Unben. Bestalde, taldeko **Iera Etxebarria eta Anne Fernandez de Corres** jokalaria (argazkian) Dubain daude, bertan jokatzen den World Rugby Txapelketan parte hartzen.

Ohorezko B Mailako Eibar Rugby Taldeak, bestalde, azken jardunaldian Hernirekin Unben 5-25 galdu eta gero, beheko postuetatik ihes egiteko borrokan murgilduta jarraitzen du. Gaston Ibarbururen mutilek atzetik Valtecsa, Bera Bera, Uribealde eta Palencia dituzte eta euren gainetik, puntu bakarrera, Vithas Gaztedi. Goiko aldean ihes egin dute dagoeneko Santander, Pasek Beñenos, Hernani eta Getxo taldeek, eta lau horiek izango dira maila igotzeko borrokatuko dutenak.



## Urte eta erdi geroago Arrate Eibarkoek galdu egin dute

>>> Eskubaloiko emakumezkoen talde nagusiak bere partidua galdu zuen azken asteburuan, azkena galdu zuenetik 18 hilabetetara. Marka bikaina, beraz, eibartarrek ezarri dutena. Hori bai, Bera Beraren aurka azken jardunaldian Donostian jokatutako partidua ez zen eibartarren onenetakoa izan eta, azkenean, amore eman behar izan zuen. Hala ere, Andoni Perezek zuzentzen duen taldeak lider izaten jarraitzen du. Postu berean dago gizon-

koen talde nagusia Nazional I. Mailan, azken jardunaldian Beti Onak taldea 33-25 gaitu eta gero. Lander Casado (zazpi gol) eta Asier Urain eta Axier Gisasola (seina) izan ziren goleatzaile nagusienak.

Bestalde, Ipuruan zapatu arratsaldean jokatutako Brasilgo eta Euskadiko selekzioen arteko norgehiagokan Irunde de Castro eibartarrak debuta egin zuen kamiseta berdearekin, "esperientzia izugarria bizi zitzeko, zaletuen giroari esker".

## Afizonatuen mailako Bankoa Abanca-DV Torneoaren finalerdiak jokatuko dira Astelenan hilaren 11n

>>> Hilaren 11n, arratsaldeko 16:00etan hasiko den jaialdian, jokatuko da Astelena frontoian torneo ospetsu horretako finalerdietako bat; bestea bihar izango da, ordu berean, Tolosako Beotibarren. Eibarko finalerdian honako partidua hauek ikusi ahal izango dira: emakumezkoen arteko lau eta erdiaren barruan, Olatz Arrizabalaga eta Miriam Arrillaga ariko dira, nor baino nor; jarraian, promesa mailako binakakoan, Arrillaga-Iztueta eta Eñaut Lizeaga-Eskuza izango dira indarrak neurtuko



dituzten bikoteak; eta, azkenik, senior mailako binakakoan, Julen Alberdi eta Arbizuk Exposito eta Morgaetxebarria izango dituzte aurrez-aurre.



## Sergio Osua eibartarra nagusi K1 amateur modalitatean egindako debutean

>>> Azpeitiko Kuraia gimnasioko Sergio Osua eibartarrak garaipen argia eskuratu zuen Errenteriako Kenthai gimnasioko Victor Hugoren aurrean, bi minutuko hiru asaltotara antolatutako borrokan; eibartararen debuta izan zen K1 amateur modalitatean. Zarautzko Aritzbataldekiroldegian aurreko zapatuan izandako jaialdian parte hartu zuen baita Jose Pirela debarrak ere, azken horrek

Inda Team Eibarko kluba ordezkatzeko; Indakoak puntuetara irabazi zion Azpeitiko Kuraia taldeko Andreuri bi minutuko bi asaltotara lotutako borrokan, finalerdietan puntuetara galdu aurretik. Ekitaldia amaitzeko borroka nagusian Donostiko Kuraia klubeko Sandra Perezek eta Burlatoko Kanku gimnasioko Nora Perezek neurtu zituzten indarrak, azken honek irabazteko gutxigatik.



## 22 urteko Hodei Ezpeleta aizkolaria 1. Mailako Euskadiko txapeldun

>>> Aurreko domekan Tolosan jokotutako aizkolarien Euskadiko Txapelketan, eibartarrak txapela jantzi zuen lan ikusgarria egin ondoren. Hasieratik hartu zuen burua eta amaiera arte ez zuen postu hori laga Beotibar pilotalekuan jokatu zen lehiaketan. Xabier Zaldua pentathloiko gaur egungo Euskadiko txapelduna izan zen bigarren, minutu eta 37 segundora, eta atzetik sailkatu ziren Jose Antonio Etxeberria, Oier Kañamarek, Iban Resano eta Luis Mari Txapartegi. Lau kanaerdiko, 60 ontzako lau enbor eta lau oinbiko moztu behar zituzten lehiakideek, eta txapeldunak 44 minutu eta 40 segundo behar izan zituen horretarako. Zalduak 46:17ko denbora egin zuen, Jose Antonio Etxeberriak 47:30, Oier Kañamaresek 48:48, Iban Resanok 51:30 eta, azkenik, Luis

Mari Txapartegi beteranoak 53:27. Txapeldunak proba amaitu eta gero egindako adierazpenetan Ernesto Ezpeleta "Bihurri" bere aitak prestaketa lanetan eskainitako laguntza eskertu zuen. Adituen esanetan ere hasieratik amaierara Hodei Ezpeleta Eibarko gazteak erakutsitako etengabeko jarduna azpimarratu zen, fisikoki bikain erantzun ziolako hiru ordu laurden irauin zuen lan gogorrari. Emaitza bikaina, beraz, ibilbide ezin zuzenagoa egiten daraman Bihurri gaztearentzat.

Domekan irabazitako Euskadiko txapela, jakina, ez da bakarria Hodeiren buruan. Ernesto Ezpeletaren semeak aurretik Urrezko Aizkora ere irabazi zuen aurtien Lekunberrin jokotutako saioan, ekainean, Patxi Mindegia eta Oier Kañamaresei aurrea hartuz. "Bihurri"



Hodei Ezpeleta "Bihurri" Ernesto aitarekin, aurreko domekan eta 2009an.

gaztearen progresioa geraezina izan da oso gazte aizkora munduan murgiltzen hasi zenetik eta, aitaren esperientziaz baliatuz, aurretik ere hainbat titulu bereganatu ditu, tartean Eus-

kal Herriko Aizkolaria Gazteen txapela (2017ko abenduan) eta, Julen Larrea kide zuela, Urrezko Binakako Aizkolaria txapelketa, 23 urtez azpikoetan (2019ko martxoan).



## Kalamuako hamar ordezkari 11 dominekin itzuli dira Espainiako jiu-jitsu txapelketatik

>>> Aurreko asteburuan Madrildo Kirol Kontseilu Nagusiaren kiroldegian jokotutako jiu-jitsuko Espainiako Txapelketaren finaleran, Kalamua ordezkatzeko joan ziren kirolari guztiek ezin hobeto lehiatu zuten eta emaitzak ere maila horretakoak izan ziren. Zapatuan

Ne Waza modalitateko lehiak izan ziren eta eibartarrek urrezko bi domina (Jonathan Garcia eta Octavio Oscar), zilarrezko beste bi (Naroa Garcia eta Bu-yannemekh Munkhsukhi) eta brontzezko bost (Iker Martinez, Javier Lassa, Ander Fernandez, Christian Richard eta Jo-

natan Terron) irabazi zituzten. Domekan jokotutako borroka modalitatean bi izan ziren Kalamuakoak, eta biek brontzezkoa eskuratu zuten (Iker Martinez eta Jonatan Terron). Manu Agirre izan zuten entrenatzaile eta Julio Gallego delegatu; honek Euskadi ere ordezkatu zuen.

ENRIQUE GUERRICABEITIA NAFARRATE

1. urteurrena: 2020/11/27



ABONTZAKO KOADRILAK  
ez zaitu ahazten





## Ipuruako gimnastak nagusi Euskalgym txapelketan

>>> Ipuruako senior mailako taldeak ibilbide ezin zuzenagoa darama azkenaldian eta, hori frogatzeko, Euskalgym txapelketan ere nagusitu zen bere mailako 37 taldeen artean. Gaur egungo Gipuzkoako eta Euskadiko txapelak bost pare mazekin egindako zailtasun handiko ariketan erritmo handian egindako jaurtiketak eta elkartrukeak erakutsi zituz-

ten. Nahia Arguiz, Sara Aranguren, Izaro Altuna, Indira del Pino eta June Herederok osatutako boskoteak ezin hobeto jardun zuen. Euskalgym torneo berean Ipuruako kadete oinarri mailako taldeak brontzezko domina eskuratu zuen, Euskadiko eta Gipuzkoako txapelketetan eta Izar Leku eta Gasteizko Hiri torneoetan lortutako urrezko koei gehitu beharrekoak.

## Goiko eta beheko postuak definitzen hasi dira foball zaletuaren ligaren erdialdean

>>> Hiru goian eta lau behean nabarmentzen hasi dira foball-zaletuaren torneoaren edizio honetan: Bar Txoko, Feredu Bar EzDok eta Garajes Garcia taldeek aurrera egin dute eta baita tartetxoak lortu ere; bestalde, zuloan borrokatzen dihardute JMR Tankemans, Bar Banaka L. Rueda, Bali Sports Center eta Chic taldeek. Zortzi jardunaldi jokatu, Txoko da partidurik galdu gabe jarraitzen duen talde bakarra eta, aldiz, partidu gutxien irabazi duena ere bitan behintzat garaile izan da. Fereduk sartu ditu gol gehien (24), Txoko (22) eta G. Garcia (20) aurretik, eta hiru talde horiek dira, aldi berean, gutxien jaso dituzte-

nak: lehen biek zazpi besterik ez dituzte hartu eta Garajesek bederatzi. Sailkapeneko puntu kopuruei dagokienez, Txokok 20 ditu, Fereduk 18 eta G. Garcia 17; eta, behelaldean, JMR Tankemans, Banaka eta Bali taldeek zazpi dituzten bitartean, puntu bat gutxiagorekin gertutik jarraitzen die Chic taldeak.

Azken jardunaldiko partidu erakargarrienean, Garajes eta Txoko taldeek bina berdindu zuten eta Chic-ek bere bigarren garaipena eskuratu zuen, Adahi Eraieder-en aurrean (3-1). Orain geldialdia dator, datorren asteko zubiak eraginda, eta hemendik hamabost egunera jokatu da hurrengo jardunaldia.

## Huelva eta Zaragoza, Eibar FTkoen hurrengo hitzorduak

>>> 1. Mailako Iberdrola Ligako ordezkariak neurketa garrantzitsuari egin beharko dio aurre etzi Huelvan, goizeko 11:00etatik aurrera, azken postuetatik ihes egiteko borrokan sartuta daudelako talde biak. Andaluziarrek sei puntu dituzte gaur egun, eibartarrek baino hiru gutxiago, eta azken bi postuak gero eta gertuago, ikutzen ia. 2. Mailako gizonen taldeak, bestalde, Zaragozari egingo diote bisita astelehenean, arratsaldeko 16:00etatik aurrera, jokatu den partiduan. Aragoiarrak liga hasi aurretik faboritoen artean bazeuden ere, une honetan goiko postuetatik urruti daude. Ez



da hori Eibar FT-aren kasua, Garitanoren taldea bigarren postuan finkatu delako Giro-nari Ipuruan irabazi eta gero.



## Uzta bikaina bildu zuten Urbat waterpoloko taldeek azken jardunaldian

>>> Klubak bere osotasunean gaur egun duen indarraren erakusle izan ziren aurreko asteburuan maila guztietako taldeek lortutako emaitzak. Euskal Herriko Ligaren 1. Mailan Eibarko taldeak garaipen erraza eskuratu zuen Lautadaren aurrean Orbea igerilekuan, sailkapeneko azkenari 22-3 irabaziz. Emakumezkoen taldea ere garaile izan zen, Nautica Portugalete talde bizkaitarrari 3-9 gailenduta. Lehen Mailako taldeen garai-

penei Euskal Herriko kadete misto ligan eibartarrek Waterpolo Donostiren aurrean lortutako 12-6koa gehitu behar zaie. Eta, amaitzeko, aipatutako hiru garaipen horiei gizonen 2. Mailan Urbat-eko bigarren taldeak Hernanin eskuratutako berdinketa. 11na amaitu zen partidu hori, Urbat-Urkotronik-eko asteburuko partidurik borrokatuenean; Xabier Varelaren parte-hartze esanguratsurekin.



## Eneko Baz eibartarrak munduko txapela jantzi du Kulturismo Naturalean

>>> EHUko Kirol Zientzietan graduatutako 28 urteko kirolariak profesional mailako munduko txapela jantzi berri du Kulturismo Naturalean. AEB-eko Las Vegasen jokatu zen Men's Physique Taila Altuko lehiaketa hori eta bere burutik pasatzen ez zen garaipena lortu zuen Bazek. Berak dioenez, probatzera joan zen, inolako itxaropenik gabe: "Aurrez Italian lortu nuen garaipenaren ondorioa da, horko emaitzak ahalbidetu baitzidan profesionalen jardutea".

Eneko Murtzian bizi da gaur egun eta bertatik darama bere kirol jarduna, "gorputza era naturalenean zainduz". Orain arte egindako ibilbidea ez da erraza izan, baina eibartarrak seriotasunez hartzen du bere jarduna: "Aukera dut nire presaketan egiten dudana lanarekin

partekatzeko. Sare sozialetan, irakaskuntzan eta online entrenamenduetan dihardut, beti ere kulturismo naturalaren inguruko gaiekin". Egiten duenarekin guztiz sinestuta, onartzen du ohiko kulturismoak naturalak baino indar gehiago duela, baina badaki bere modalitateak gero eta indar gehiago diharduela hartzen. Munduko titulu hori lortzeko 15 bat kilo galdu ditu, baina ohituta dago horrelako "sakrifizioak" egitera, "beti ere naturalki, inolako substantziarik hartu gabe; horregatik gure gorputzak ez dira kulturismoan ikusten diren bezalakoak. Gure kasuan, giharra irabazteko askoz ere denbora gehiago behar izaten dugu".

Berarekin batera Espainia ordezkatzeko joan diren kideek ere maila onean jardun dute: "Azkenaldian kirol hau indarra



Eneko Bazentzat kulturismoa bizitza-estiloa ere bada.

hartzen doalako hemen. Taiwan eta Erresuma Batua dira beste bi potentzia gaur egun". Eneko Bazek hurrengo erronka hemendik bi urtera izango du, "orduko munduko txapelketan

maila absolutuan lehiatzeko asmoa dudalako". Bitartean bere bizimoduari eutsiko dio, "egunero pare bat ordu gimnasioan egin eta etxean jan eta atsedean hartuz", dio kirolari finak.



## Babajana Deporrekoren mendi irteeretako denboraldia ixteko

>>> Ohikoari jarraituz, Klub Deportiboko mendi taldekoek urteko azken irteera prestatu dute dagoeneko, "babajana bazkariarekin amaituko dena". Oraingoan, Aulestin abiatuta, Nabarnizeraino joango dira, tartean Illuntzar tontorretik (726 metro) pasa eta gero. Guztira 14 kilometroko ibilbidea

osatu ondoren, bazkaria egingo dute irteeran parte hartzen duten guztiek, "Nabarniz jate-txean". Joateko asmoa dute-nentzeko izena emateko azken eguna hilaren 7a izango da. Informazio gehiago 943-201904 zenbakian jaso daiteke eta baita martitzen eta eguenetan buletogik pasatuta (19:30-20:30).




**ENRIQUE AÑIBARRO ZUBIZARRETA**

1. urteurrena: 2020/12/04

**"Beti izango zaitugu gogoan"**

ETXEOAK





## Ospakizun gutxi baina aldarrikapen ugari Euskararen Egunean

>>> Abenduak 3, bere eguna du gaur euskarak, Euskararen Nazioarteko Eguna, hain zuzen ere. Egoera normal batean, azken ordukoak lotzen eta ziurtatzen ibiliko ginateke: pankartak, materiala, megafonia, baimenak... Eta zeruari behin eta berriz begira, ia ze itxura hartzen zaion... Zoritarrez ez da horrela, eta egoerak hala behartuta, ezingo dira aurreikusitako ekitaldiak antolatu. Euskalgintza osatzen duten taldeak aspaldi hasita zeuden elkartzen, eta Euskararen Eguneko egitaraua lotuta zuten: Aldats

elektrotxarangarekin kalejira musikatua, Azitainetik hasita Untzagaraino, eta bidean bost geldidune euskal kantuek abesteko. Kaleko ekitaldirik ez da izango aurten, beraz, baina “asko dugu ospatzeko, asko hausnartzeko eta asko aldarrikatzeko. Euskaldunok, euskara maite dugunok ondo asko dakigu euskararen eguna ez dela egun honetara soilik mugatzen. Urteko 365 egunak dira euskararen egun. Bide luzea du egina euskarak eta dugu egina euskaltzaleok, eta asko lortu da, baina oraindik ere pauso asko eman behar ditugu begiz jota dugun helmugara iritsi nahi badugu.

Aprobetxa dezagun egun hau hausnarketa, eta zergatik ez, autokritika egiteko, gure hizkuntz ohituren inguruan gogoeta egiteko, izan norbanako, elkarte, ikastetxe edo instituzio, ardura eta erantzukizuna ere gu guztiona dira-eta”, Eibarko euskalgintzatik.


### Maiatzean Tantan ez Tantan

Egoerak uzten badu behintzat, maiatzean euskararen aldeko olatua itzuliko da Eibarko kaleetara. “Hori ere bagabiltza antolatzen. Ia olatua Urkizutik Untzagaraino eramateko aukera dugun. Oraindik ezin dugu ezer aurreratu baina protagonista bereziak izango ditu 2022ko edizioak, eta are ikusgarriagoa izango da”. Udaberriarekin batera Eibarko kaleak urdinez margotuz eta euskararen olatuak bultzatuta “tantan ez tantan eta eskutik eskura helmugaraino eramango dugu euskara”.



## Espazioak antolatzen ikasten konmari metodoarekin

>>> Sara Etxebeste KonMari Aholkulari Agiridunaren azalpenak adi entzuz zituzten ...eta kitto!-ra hurbildu ziren dozena bat lagunek. Etxeko espazioak antolatzeko eta ordenatzeko metodoaren oinarriak azaldu zituen Sarak, prozesura gerturatzeko lehenengo pauso moduan. Ikastaro teorikoa izan zen batez ere, baina zenbait ariketa ere egin zituzten partehartzaileek. Aurrera begira, saio praktikoak antolatzeko asmoa agertu du elkarteak.



## Kalean da azaroko Txikitto!

>>> Aurreko astean jaso zuten eskolan LHko ikasleek Txikitto!-ren azkeneko alea. Txistek, denborapasak, ipuina edota ikastetxeetako berriez gain, oraingoan Amañako ikasleekin egon gara martxan duten proiektu berri bati buruz berba egiten: beldurrezko pelikula bat ari dira prestatzen. Gabonetako oporren aurretik abenduko alea jasoko dute 6 eta 12 urte bitarteko ikasleek.







## Banatu dituzte San Andres Bertso Paper lehiaketako sariak

Aurreko astean, eguenean egin zen Coliseo antzokian San Andres Bertso Jaialdia, ...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik. Aurtengo jaialdian Nerea Elustondo, Amets Arzallus, Sustrai Colina eta Agin Laburu bertsolariek jardun zuten, Jon Mikel Mujika gai-jartzailearen esanetara, baina aurretik aurtengo San Andres Bertso Paper lehiaketako irabazleei sariak banatu zizkien Ekaitz Juaristi ...eta kitto! Euskara Elkartearen presidentek eta saritutako bertsoak kantatu zituzten.

Edizio honetan, helduen mailan lehen saria Urko Egaña azpeitiarrak eskuratu du (300 euro eta txapela) eta bigarrena Iñigo Legorburu oreretarrak (250 euro eta plaka). Eta 16 urtetik beherakoen artean, lehen saria Martin Santa Marinak eraman du (txapela eta liburu bat) eta bigarrena Mara Olañetak (plaka eta liburu bat). Juan Antonio Mogel Ikastolako ikasleak dira biak.

Bideoa ikusi nahi baduzue, QR kodea eskaneatu.







# GABONETAKO OTAR EDERRAK

ETA SARI MORDOA  
ZOKKETATUKO DITU  
**ABENDUAREN 13AN**

**...ETA KITTO!-K**

Irabazleak 10 eguneko epea  
izango du saria jasotzeko  
**(abenduak 23, 00:00 arte)**

**HEMEN DITUZUE SARIETAKO ZENBAKIAK  
ETA EUREI DAGOZKIEN ENPRESA  
EDO DENDAK ETA PRODUKTUAK**

*Eskerrik asko guzti-guztioi!*

- 1 El Corte Inglés ... 500€-ko opari txartela
- 2 Eroski ..... Otarra
- 3 Benicoba ..... Patinetea
- 4 Jaz Zubiaurre .. Frijigailua
- 5 Jaz Zubiaurre .. Irabiagailua
- 6 Jaz Zubiaurre .. Ile-lehorgailua
- 7 Jaz Zubiaurre .. Kafetera italiarra
- 8 Jaz Zubiaurre .. Zukugailua
- 9 Jorge Vega .... Oral B Vitality hortzetako eskuila elektrikoa
- 10 Emankor Taldea Black Decker xurgagailua
- 11 Emankor Taldea Ile-moldatzailea
- 12 Emankor Taldea Cecotec pisua
- 13 Emankor Taldea Moulinex irabiagailua
- 14 Eibarbus ..... Philips ilea moztetokoa
- 15 Eibarbus ..... Valira termoa
- 16 Eibarbus ..... Taurus txigorgailua
- 17 Industrias Mail .. Tableta
- 18 Industrias Mail .. Bozgorailu eramangarria
- 19 Industrias Mail .. Ilerako plantxa





- 20 Industrias Mail .. Irratia
- 21 Industrias Mail .. Solac ka/etera
- 22 Gerritek ..... Tableta
- 23 Mugika Harategia 70€-ko erosketa balea
- 24 El Cantón de la Avenida Bi sobre urdaiazpiko paletilla iberikoa
- 25 El Cantón de la Avenida Bi sobre urdaiazpiko paletilla iberikoa
- 26 El Cantón de la Avenida Bi sobre urdaiazpiko paletilla iberikoa
- 27 El Cantón de la Avenida Bi sobre urdaiazpiko paletilla iberikoa
- 28 El Cantón de la Avenida Bi sobre urdaiazpiko paletilla iberikoa
- 29 El Cantón de la Avenida Bi sobre urdaiazpiko paletilla iberikoa
- 30 El Cantón de la Avenida Bi sobre urdaiazpiko paletilla iberikoa
- 31 El Cantón de la Avenida Bi sobre urdaiazpiko paletilla iberikoa
- 32 El Cantón de la Avenida Bi sobre urdaiazpiko paletilla iberikoa
- 33 El Cantón de la Avenida Bi sobre urdaiazpiko paletilla iberikoa
- 34 El Cantón de la Avenida Bi sobre urdaiazpiko paletilla iberikoa
- 35 El Cantón de la Avenida Bi sobre urdaiazpiko paletilla iberikoa
- 36 El Cantón de la Avenida Bi sobre urdaiazpiko paletilla iberikoa
- 37 El Cantón de la Avenida Bi sobre urdaiazpiko paletilla iberikoa
- 38 El Cantón de la Avenida Bi sobre urdaiazpiko paletilla iberikoa

- 39 Torrekua Gasolindegia 30€-ko gasolina bonoa
- 40 Kantoi Gasolindegia 25€-ko gasolina bonoa
- 41 Kantoi Gasolindegia 25€-ko gasolina bonoa
- 42 Azitain Gasolindegia 30€-ko gasolina bonoa
- 43 Sosola ..... Gazta
- 44 Zorionak ..... Bi orduko jolasa
- 45 Zorionak ..... Bi orduko jolasa
- 46 Zorionak ..... Bi orduko jolasa
- 47 Zorionak ..... Bi orduko jolasa
- 48 Zorionak ..... Bi orduko jolasa
- 49 Zorionak ..... Larunbat goizeko tailerra
- 50 Zorionak ..... Larunbat goizeko tailerra
- 51 Zorionak ..... Larunbat goizeko tailerra
- 52 Zorionak ..... Larunbat goizeko tailerra
- 53 Zorionak ..... Larunbat goizeko tailerra
- 54 Unzaga Plaza .. Afaria bi laguntzako
- 55 Artola ..... Menua bi laguntzako
- 56 Akara ..... Menua bi laguntzako
- 57 Astelena ..... Bazkaria bi laguntzako
- 58 Izadi ..... Lore zentroa
- 59 Askasibar ..... Motxila bat eta mikrofibrako toalla
- 60 Askasibar ..... Motxila bat eta mikrofibrako toalla
- 61 Athletic ..... Kamiseta
- 62 Eibar Sasoian .. Imbalance klase bat
- 63 Eibar Sasoian .. Imbalance klase bat
- 64 Gratzina ..... Boltso bat
- 65 Gratzina ..... Boltso bat
- 66 Irei estetika .... Aurpegi-garbigeta
- 67 Eibar Futbol Taldea Kamiseta
- 68 Eibar Futbol Taldea Bufanda eta banderola
- 69 Eibar Rugby Taldea Baloia eta sudadera
- 70 Ikusi ..... Praka eta jertsea
- 71 Ikusi ..... Praka eta jertsea
- 72 Kopiaña ..... Jott mobila
- 73 Kopiaña ..... Jott mobila
- 74 Guridi ..... Gomez de Segura Magnum botila
- 75 Guridi ..... Gomez de Segura Magnum botila
- 76 Guridi ..... Gomez de Segura Magnum botila
- 77 Baisi ..... Enate Zuria Magnum botila
- 78 Klub Deportiboa Maillota
- 79 ..... Bordon Zuria bi botila eta bitxiak eskegitzekoa
- 80 Ane Campos nutrizionista Gorputz-Azterketa
- 81 Maider Carrasco estetizista Aurpegi-Garbigeta eta Hidratazioa



## Itsaspeko irudirik onenen proiektzioak eta erakusketa

Eguaztenean hasi zen Eibar-ko Itsaspeko Zinemaren Nazioarteko Zikloaren 20. edizioa, ikastetxeendako Coliseoan eskainitako Txikizikloarekin. “Itsasoarekiko maitasuna ahal denean” goiburuari jarraituta Klub Deportiboko urpeko jardueren batzordekoekin elkar-lanean antolatutako zikloan aurtengo edizioan aurkeztu diren film labur eta dokumental onenak proiektatuko dituzte. Gaur hirugarren proiektzio eguna izango da eta, aurreko bi egunetan bezala, lehen mailako estreinaldiak ikusi ahal izango dira, pantaila handian, 19:00etatik aurrera Coliseo antzokian (sarrera doan da). Bihar, berriz, 10:00etatik 11:30era Txikizikloa familian ospatuko dute. Antolatzaileen berbetan, “ekitaldi honen helburua familia kontzientziatzea

da, guztion esku dagoela aldaketaklimatikoa arintzen laguntzea eta gure itsaso eta ozeanoak salbatzea. Horretarako, gaur egungo egoeraren arazoa eta konponbideak azalduko ditugu”. Sarrera doakoa izango da, lekua bete arte.

Eta, horrekin batera, lehiaketara aurkeztutako argazki onenen erakusketa zabalik egongo da Untzagako jubilatuen etxean, abenduaren 5etik 19ra. 300 argazki baino gehiago aurkeztu dira, eta horietatik 24 dira deigarrienak. Antolatzaileen berbetan, “argazki hauek munduko itsaspeko hondoetan zehar eramango gaituzte eta espezie bitxienak erakutsiko dizkigute. Urtero gora egiten du lehiaketara aurkeztutako argazkien kopuruak, munduko txoko guztietatik iritsitako hiru hurrehun argazkiak gaindituz”.

## “Eibar atzo eta gaur” erakusketa ikusteko azken eguna da gaur

Einer Rodríguez Ponceren “Eibar atzo eta gaur” izenburuko argazki-erakusketa dago zabalik Untzaga zentro sozialaren erakusketa-aretoan. Gure herriko antzinako irudiak eta gaur egunekoak biltzen dituen erakusketa ikusi nahi dutenek gaur izango dute horretarako azken aukera, 19:15etik 21:15era bitartean, gero itxi egingo dute eta.



## “Eibarko kantak” Ustekaberen diskoa abenduaren 16 eta 17an aurkeztuko dute Coliseoan

Abenduaren 16an eta 17an egingo du Ustekabe fanfarreak “Eibarko kantak” diskoaren estreinaldia, Coliseo antzokian. Laster argia ikusiko duen proiektuan lanean aritu diren musikariaren berbetan, “gure aitxita-amamek kantatzen zizuten kantuak hartu, doinu eta erritmo berriekin nahastu eta zerbait berria eskaini nahi izan dugu disko honetan”. Xabier Oruesagastik zuzenduta eta Walter Tuzzeo soinu-tekniariarekin aritu dira graba-

tzen, Eibarko Koro Gaztearen ahotsek lagunduta: “Cielito”, “Eibarko herria”, “Forjariaren kanta”, “Agur esanda banuani”, “Himno a Eibar”, “Suite eibartarra”, “Hiru gizon ilustrate”, “Arragueta kalia”, “Arrateko Ama”, “Venid al pueblo de Eibar” eta “Eibar tiene su entrada”, hamaika kantu horiek aukeratu dituzte eta kantu bakoitzari buruzko informazio historikoa eta Udal Artxiboaren argazkiak bilduko dituen liburuxka bat ere egin dute.



## José Sacristán protagonista duen antzezlanaren eguazten iluntzean

Datorren eguaztenean (abenduak 8) eskainiko dute “Señora de Rojo sobre Fondo Gris”, José Sacristán aktorea protagonista duen antzezlanaren eguazten iluntzean. Miguel Delibesek idatzitako lanaren zuzendaria José Sámano da. Delibesen testuari jarraituta, grazia egoeran dagoen Sacristanek emaztea-

rekin, Ángeles de Castroarekin izandako bizitza kontatzen du lan honetan. Emakume horren nortasuna islatzen du, harentzat izan zena, eta, batez ere, 48 urterekin ustekabeko heriotza eragin zion gaixotasun-prozesua deskribatzen du. Sarrerak 20 euro balio du (14 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin).





## Mar-Mar Teatroak “Tarzan tratamenduan” antzezlan eskainiko du bihar arratsaldean

Bihar 17:00etatik aurrera “Tarzan tratamenduan”, Mar-Mar Teatroat taldearen lana ikusi ahal izango da Coliseo antzokian. Antzezlan euskaraz izango da eta aktoreen artean bada eibartarrik: Irene Hernando, Arizta Rodríguez, Eriz Alberdi eta Javi Tirado arituko dira, José Carlos García zuzenduta. Musika beste eibartar batena, Fran Lasuenena da eta dramaturgia Kike Diaz de Radarena. Kontatuko duten istorioan Tarzanen bizitzako

pasarte nagusiak gogoratuko dituzte: “Oihana ikaratu egiten da haur baten negarraren aurrean. Tximino handiak, jakin-minez, haurraren gaina hurbiltzen ari dira. Bere kumea hil berria duen Kalak haurra adoptatzea erabakitzen du. 25 urte geroago, Londresen, Lord Greystoke VII. ak, ingeles noble batek, hiriko zooko animaliak askatu berri ditu eta psikoanalista bera zela konbentzitzen saiatuko da. Tarzan, oihaneko erregea”. Sarrerak 5 euro balio du.



## Exfibar seilu-erakusketak domekan itxiko ditu ateak

Domekara arte egongo da zabalik “Exfibar 2021. LII. Seilu erakusketa”, Portalean. Arrate Filatelia Elkarteak antolatzen duen erakusketak ordutegi berezia dauka: gaur 18:00etatik 20:00etara zabalduko dute

eta bihar eta etzi 12:00etatik 14:00etara. Eibar sortu zeneko 650. urteurrenari eskaini diote aurten erakusketa eta, katalogoan, berriz, Eibarko posta-historiari buruzko artikulua bat jaso dute, besteak beste.



## Klub Deportiboko argazkilarien erakusketa Portalean

Abenduaren 10etik urtarrilaren 9ra bitartean egongo da Eibarko Klub Deportiboko Argazki Taldearen erakusketa ikusgai Portalean. Oscar Baglietto, Jose Vila, Jose Luis Irigoien, Bakarne Elejalde, Jose Ignacio de Castro, Juan Antonio Palacios, Pedro Arriola, Jose Valderrey, Enrique Lorenzo, Zigor Astigarraga, Fernando Retolaza, Juan Manuel Lucena, Einer Rodríguez, Mikel Urionaguena, Federico Cuenca, Silvia Tardío, Estrella Tardío, Josean Carbajo, Fernando Solana eta Virginia Arakistain argazkilarien lanak ikusi ahal izango dira, beti bezala, martitzenetik domekara, 18:30etik 20:30era.

## Organo kontzertu bikaina

Helmholtz CV Church organoa Eibarren egiten hasi zirela 60 urte bete direla ospatzeko, kontzertu biribila egingen Coliseo antzokian San Andres egunean. Goi mailako musikariek osatutako kartelarekin, publikoak asko disfrutatu zuen emanaldiarekin. Kontzertuan bi organo erabili zituzten: Eibarren egindako Helmholtz CV Church bat eta Chicagon (AEB) egindako Hammond bat, biak Jesus Mari Agirre eibartarrak konpondutakoak.



## Hondartzako irudiak Topalekuan

Abenduaren 12ra arte egongo da “Hondartzan”, Jose Luis Irigoienek argazki-erakusketa zabalik Arrate Kultur Elkartearen Topalekuan. Abenduaren 12ra arte egongo da ikustera joateko aukera, astegunetan 19:00etik 21:00etara eta asteburuetan 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara.



“No le puedo sacarle Tokaionetikan, porque le gusta mucho napar beltzetikan”. JOXE ARANBERRI



# Hitza eta ekimena indartzeko urtea

*Auzia ez da izan ala ez izan. Nolako edo halako izan. Kontua ez da hori. Kontua ekitea da. Egitea. Egiten duguna gara. Izatea egitea da.*

Sei urte luze pasatu dira Lorea Agirrek 19. KORRIKAREN amaieran hitz gogoangarri haiek adierazi zituenetik. Kontua ahalduntzea zen; ekintza aldarrikatzea, alegia. Izan ere, azken urteotan maiz zabaldu da *alde egotetik alde egitera* jauzi egiteko deia ere; euskararen mugimenduan, nabarmen azpimarratu izan dugu harago joateko unea zela, eta dela.

KORRIKAREN azken aurreko edizioan ere, Klika egiteko gonbidapena luzatu genuen; hots, hautua egiteko, konpromisoak hartzeko gonbidapena. Eta 2018an ezagutu genuen euskal herritarrok mugiarazi gaituen ekimenik praktikoena: EUSKARALDIA. Ekintzan oinarritutako ariketa sozial erraldoi horrek nork bere hizkuntza-ohiturak aldatzeko proposamena egin eta rol bi eskaini zizkigun: *ahobizi* eta *belarriprest* rolak. Batzuek euskaraz aritzeko konpromisoa hartu genuen, eta besteok ezinbesteko konplize bihurtu ginen euskaraz aritzeko. Bigarren edizioan, gainera, entitateetara ere zabaldu zen ariketa eta arigunak sortzeko proposamena zabaldu zen; hau da, euskaraz eroso aritzeko espazioak.

Euskararen aldeko dinamika hedatzen eta indartzen ari zirela, ordea, pandemia agertu zen, eta, hondamendi soziala eragiteaz gain, euskararen biziberritze-dinamika gogor kolpatu zuen. Pandemiak erakutsi digu, ikusarazi digu, gal dezakegula orain arte irabazitakoa, zaindu eta sustatu ezean. Horregatik, azken urteetako irabazia galbidean ikusi nahi ez badugu, gure hizkuntzaren iraupenak eta garapenak bultzada berriak beharko dituzte. Eta horretarako aukera bikaina eskainiko digu datorren urteak, Korrikan parte hartuta, Euskaraldian *ahobizi* edo *belarriprest* modura arituta, eta ekimenok antolatzen batzordeetan esku hartuta.

Ate joka dugun 2022. urtean, ekimen erraldoi bi horien edizio berriak ezagutuko ditugu. Abian da jada 22. Korrikaren kanpaina, eta, udaberrian, —2022ko martxoaren 31tik, apirilaren

**“Azken urteetako irabazia galbidean ikusi nahi ez badugu, gure hizkuntzaren iraupenak eta garapenak bultzada berriak beharko dituzte”**

10era— eskuz esku joango da lekukoa Amurrietik Donostiaraino. Bestalde, 3. Euskaraldia ere aurkeztu da: 2022ko azaroaren 18tik abenduaren 2ra izango da, eta, aurreko bi edizioetan abian jarritako dinamika sendotzeaz gain, herritar, entitate eta herri gehiagorengana/gehiagotara iristeko helburua ere izango du.

Beraz, 2022a euskararen urtea izan dadin lortu behar dugu, aro berri baterako abiapuntua jarrita. *HITZEKIN* dio 22. KORRIKAREN leloak, eta *HITZEZEKITEKO GARAILA* 3. Euskaraldiarenak. Bi ekimenen antolatzaileok argi dugu *2022a hitzaren eta ekintzaren urtea* izango dela.

**“Euskararen biziberritze-bide honetan, jakina, guztion ekarpena behar-beharrezkoa izango da: herritarrona, gizarte-mugimendua, erakundeena eta era guztietako entitateena”**

Gainera, bi ekimenak, biak ala biak, Euskal Herri osora zabaltzen dira. Guk Baionatik Tuterara eta Muskizetik Santa Grazira zabaldu nahi dugu euskararen aldeko dinamika, euskararen ezagutza unibertsaliza dadin, erabilera lau haizeetara heda dadin eta euskaraz eroso aritzeko guneak ugaltzeko daitezkeen.


Euskararen biziberritze-bide honetan, jakina, guztion ekarpena behar-beharrezkoa izango da: herritarrona, gizarte-mugimendua, erakundeena eta era guztietako entitateena. Soilik elkarlanean eta denon bultzadaz lortuko dugu euskarak aurrera egitea, guztiok baitugu egin, eragin eta eginarazteko aukera.

Hizkuntza bat hitzekin osatzen da, eta hitza beharrezkoa da ohiturak aldatzeko. Ekimenek eraikitzen dute hizkuntza baten komunitatea, eta, inguruan eragiteko, ekintza nahitaezkoa dugu. Euskal Herri osoko euskaldunak, beraz, hitzekin ekitera animatzen zaituztegu, Korrika eta Euskaraldia batzordeetan parte hartuz, hizkuntza-ohiturak aldatzeko dinamika sustatzera, euskarazko guneak sortuz, eta euskara erabil dadin baldintzak bermatzera zeuen entitateetan edo ingurunean.

KORRIKAREkin nahiz EUSKARALDIAREkin, berriz kalera ateratzeko garaia da.

Alizia Iribarren AEK-ko koordinatzaile nagusia eta Kike Amonarri Euskaltzaleen Topaguneko presidentea

Hona hemen hamar zuhaitzetako hostoak eta frutuak, asko gure inguruetan ikusi ditzazkegunak, hostoerorikorrak badira ere. Lotuko zenituzke bakoitzari dagokion hostoa eta frutua?  
Honakoak dira zuhaitzak: ALMENDRONDOA, EZKIA, GAZTAINONDOA, HARITZA, HURRITZA, INTXAURRONDOA, ITZAL-BANANONDOA, LIZARRA, PAGOA ETA PIKONDOA.



Almendrondoa 2A  
Ezka 5E  
Gaztainondo 2H  
Haritza 6B  
Hurrirtza 6B  
Itxaurrondo 6A  
Itzal-banondo 7J  
Lizarr 10I  
Pagoa 6F  
Pikondo 5C

6	5			7	2	
			7	4		6
		3			9	
8	6	1				
	2	7	8		4	
			3		5	2
	7		4			
4		8	1			
	1	9			2	4

3	1	9	6	5	7	2	8
4	5	0	1	9	3	6	7
2	7	0	3	4	5	1	0
7	3	4	0	5	2	6	1
0	6	4	1	2	0	8	7
8	2	7	0	3	4	5	1
9	6	1	2	0	8	7	3
0	3	4	1	2	0	8	7
8	2	7	0	3	4	5	1

soluzioa

S  
U  
D  
O  
K  
U

soluzioa

3	1	9	6	5	7	2	8
4	5	0	1	9	3	6	7
2	7	0	3	4	5	1	0
7	3	4	0	5	2	6	1
0	6	4	1	2	0	8	7
8	2	7	0	3	4	5	1
9	6	1	2	0	8	7	3
0	3	4	1	2	0	8	7
8	2	7	0	3	4	5	1

		1		2			4
2	9						6
	6	7	3	5			
		6		8	1		
1							3
		2	7		4		
		5	6	2	8		
	1				4	9	
6		8		3			



# Abenduak 2/15

## BARIXAKUA 3

### ZINE FORUMA

**18:30** "Va por nosotras" (Mohamed Hamidi) filmaren inguruko zine forum saioa. Dinamizatzailea: Izaskun Rodriguez Elkoro. Portalean (areto nagusian).



### CIMASUB EIBAR

**19:00/20:30** tsaspeko Zinemaren Nazioarteko Zikloa. Doan. Coliseoan.

## ZAPATUA 4

### CIMASUB EIBAR

**10:00** Txikiziklo. Itsaspeko Zinemaren Nazioarteko Zikloa. Doan. Coliseoan.



### ANTZERKIA

**17:00** "Tarzan tratamenduan" (Mar-Mar Teatroa). Umeentzat, euskaraz. 5 euro. Coliseoan.

### KIROLA FAMILIAN

**17:30/19:30** 2-5 urteko haur eta familientzat. Ipuruia kioldegian.

## DOMEKA 5

### PATINAK IPURUAN

**17:45/19:45** Patinatzeko aukera. Ipuruia kiroldegian.



## EGUAZTENA 8

### ANTZERKIA

**20:00** "Señora de Rojo sobre Fondo Gris", José Sacristán aktorearekin. 20 euro (14 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseoan.



## EGUENA 9

### MANIFESTAZIOA

**18:00** Roberto Pérez Jauregi indarkeria polizialaren biktima aitortua (1970) oroitzeko eta omentzeko ekitaldia. Udaletxean (Osoko Bilkuren Aretoan).

## ZAPATUA 11

### MUSIKA

**18:00** Gipuzkoan Gazte Tour. Anne Lukin, Ainhoa Larrañaga, Julen Leturiondo. 5 euro. Coliseoan.

## ASTELEHENA 13

### ZINEMA

**17:30/20:00** Musika zikloa: "Begin again" filmari buruzko saioa, Ikasten elkartearen eskutik. Dinamizatzailea: Juan Aldai. Portalean (areto nagusian).

## MARTITZENA 14

### LITERATURA

**19:00** Idazlearekin harixa emoten: Irati Goikoetxearen "Herriak ez du barkatuko". Portalean.



## ERAKUSKETAK

### Abenduaren 3ra arte:

- "EIBAR ATZO ETA GAUR", Einer Rodriguez Ponceren argazkiak (Untzagako Jubilatuen Etxea)

### Abenduaren 5era arte:

- EXFIBAR 2021. LII. Seilu Erakusketa (Portalea)

### Abenduaren 12ra arte:

- "HONDARTZAN", Jose Luis Irigoienek argazkiak (Topalekua)

### Abenduaren 5etik 19ra arte:

- "CIMASUB" Itsaspeko Zinemaren Nazioarteko Zikloaren argazkiak (Untzagako Jubilatuen Etxea)

### Abenduaren 10etik

urtarrilaren 9ra arte:

- EIBARKO KLUB DEPORTIBOKO ARGAZKI TALDEA (Portalea)

## ESKUALDEKO agenda

### DEBAN

#### KONTZERTUA

**10ean (barixakua)**  
**20:00** Kultur Elkarteko aretoa Jazz kontzertua, "Xaku" taldearekin. KulturEkin programaren baitan antolatuta.

### ERMUAN

#### KONTZERTUA

**10ean (barixakua)**  
**20:30** Ermua Antzokia Kontzertua Rodrigo Cuevasekin. Sarrera: 12 euro.

### ELGOIBARREN

#### KONTZERTUA

**10ean (barixakua)**  
**20:30** Herriko Antzokia "Amak". Iaitz Telletxea, Maixa Lizarribar, Amaia Oreja eta Kris Solano. Trikiti kontzertua.



#### KONTZERTUA

**10ean (barixakua)**  
**23:00** Kultur Etxeko Sotoa Juan Colomoren kontzertua.

### MUSIKA

**11n (zapatua)**  
**20:00** Kultur Kafea Rap emanaldia. Oilar-dema.

### ANTZERKIA

**12an (domeka)**  
**16:30** Herriko Antzokia "Butterfly effect". Familia antzerkia.

## Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Epaitegia	943 03 34 10
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekua	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 70 08 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale)	
Anonimo eta Familiak	699 37 75 20

## Eguraldia (euskalmet.net)

OSTI 3



LARUN 4



IGAN 5



ASTELE 6



ASTEAR 7



## Hildakoak

- **Javier Santos Martinez de la Pera.** 95 urte. 2021-11-23.
- **Josefina Solaguren Bizkarra.** 90 urte. 2021-11-24.
- **Iñaki Iruستا Telletxea.** 65 urte. 2021-11-25.
- **Maria Garaizabal Isasti.** 95 urte. 2021-11-25.
- **Federico Etxeberria Azkonaga.** 92 urte. 2021-11-27.
- **Maria Teresa Gabilondo Bergara.** 79 urte. 2021-11-28.
- **Maria Luz Landa Medikute.** 93 urte. 2021-12-02.

## Farmaziak

### BARIXAKUA 3

EGUNEZ | Castaño (J. Etxeberria, 7)

### ZAPATUA 4

EGUNEZ | Azkue (T. Etxebarria, 4)

### DOMEKA 5

EGUNEZ | Castaño (J. Etxeberria, 7)

### ASTELEHENA 6

EGUNEZ | Castaño (J. Etxeberria, 7)

### MARTITZENA 7

EGUNEZ | Barandela (Z. Agirre, 4)

### EGUAZTENA 8

EGUNEZ | Elortza (J. Gisasola, 18)

### EGUENA 9

EGUNEZ | Iraundegi (Calbeton, 19)

### BARIXAKUA 10

EGUNEZ | Mendinueta (Urkizu, 6)

### ZAPATUA 11

EGUNEZ | Castaño (J. Etxeberria, 7)

### DOMEKA 12

EGUNEZ | Castaño (J. Etxeberria, 7)

### ASTELEHENA 13

EGUNEZ | Morgado (San Agustin, 3)

### MARTITZENA 14

EGUNEZ | Castaño (J. Etxeberria, 7)

### EGUAZTENA 15

EGUNEZ | Azkue (T. Etxebarria, 4)

### EGUENA 16

EGUNEZ | Barandela (Z. Agirre, 4)

### BARIXAKUA 17

EGUNEZ | Lekunberri (Isasi, 31)

GAUEZ BETI, 2021ean,  
Izpizua (Ibarkurutze, 7)

## ZINEA COLISEO

### 1 ARETOA

- **4an:** 19:30, 22:30
- **5ean:** 17:00, 20:00
- **6an:** 17:00, 20:30

### “La casa Gucci”

Zuzendaria: Ridley Scott



### 2 ARETOA

- **4an:** 17:00, 19:45, 22:30
- **5ean:** 17:00, 20:00
- **6an:** 17:00, 20:30

### “La hija”

Zuzendaria: Manuel Martin Cuenca



### ANTZOKIA

- **4an:** 17:00 (1 Aretoa), 19:45, 22:30
- **5ean:** 17:00, 20:00
- **6an:** 17:00, 20:30

### “Cazafantasmas: Más allá”

Zuzendaria: Jason Reitman



Aitxitxa eta Amama,  
gure bizitzen  
iparrorratza zarete.

– ETXEKUAK –



688 62 76 89

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20 ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazu.



Zorionak, **MADDI**, bixar 9 urte beteko dozuz-eta. Patxo potolo pillua etxeko guztion partez. Ondo-ondo pasa eguna.



Zorionak, **AITOR**, zure 7. urtebetetzian. Musu potoluak famelixaren partez. Illargiraiño eta buelta!



Zorionak, **BIHOTZ**, hillaren 7xan 5 urte egingo dozuz-eta, printzesa. Famelixa guztiaren eta, batez be, Amets eta Hodeiren partez.



Zorionak, **JONE**, atzo 8 urte bete zenduazen-eta. Jarraitu kantari, dantzari eta jator! Holan maite zaittugu-eta! Etxekuen partez.



Zorionak, **PAUL!** 6 urte potolo beteko dozuz hillaren 6xan. Jarraitu beti bezain maitagarri! Askok maite zaittugu!!



Zorionak, **AINHOA**, bixar 12 urte beteko dozuz-eta. Egun ederra izan eta musu haundi bat famelixa guztiaren partez



Zorionak, **TXOMIN**txo!!! Atzo 3 urte potolo bete zenduazen-eta!!! Gure txapelduna zara!!! Patxo haundi bat Pello eta Elixen partez.



Zorionak, **GAIZKA**, hillaren 9xan 12 urte beteko dozuzelako. Musu haundi bat famelixaren eta, batez be, Alaitz eta Noaren partez.



Zorionak, **MARTIN**, hillaren 7xan 12 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat etxekuen eta, batez be, Helenaren partez.



Zorionak, **SARA!** Datorren eguegian 2 urtetxo beteko dozuz-eta. Patxo potolo bat famelixa guztiaren partez.

ek!

688 62 76 89

publizitatea@etakitto.eus



**Maria Luz Landa Mendikute**

(BELEN GURE LANKIDEAREN AMA)

*Abenduaren 2an hil zen, 93 urterekin*

**Gure atsekabea eta elkartasuna adierazi nahi diegu haren senide eta lagunel.**

...eta kitto! Euskara Elkartea

# Iragarki laburrak



**943 20 09 18**  
publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak etakitto.eus webgunean ere argitaratuko dira.

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

## 1. ETXEBIZITZA

### 1.1. Salgai

- Pisuak salgai Sallabenten (Ermua). 3 logela, egongela, sukaldea eta komunak. Pisu altua eta eguzkitsua. Bista ederrak. Dena kanpora begira. Tel. 605711422.

## 3. LOKALAK

### 3.2. Errentan

- Lokala/gela alokagai Ugan Klub-ean. Fisioterapiarako edo masajeak egiteko aproposa. Tel. 943820452.

## 4. LANA

### 4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (ziurtagiriarekin). Tel. 643982534.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 642787630.
- Gizonezkoa eskaintzen da garbiketarako egiteko eta taberna edo jatetxeetan lan egiteko. Tel. 603568325.
- Gizonezkoa eskaintzen da zaintza lanetarako eta eraikuntzan lan egiteko. Esperientzia. Tel. 692932984.
- Emakumea eskaintzen da goizez nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 641821288.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (tituluarekin) eta garbiketarako egiteko. Orduka. Esperientzia. Tel. 632415374.

- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko. Tel. 603347268.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko, sukaldari-laguntzaile moduan (esperientzia hotelean) eta nagusiak zaintzeko. Tel. 642846905.
- Emakumea eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 631425686.
- Emakumea eskaintzen da 15:00etatik aurrera umeak eskolan jasotzeko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 602353585.

### 6.2. Langile bila

- Kamarera/o behar da jornada osorako Eibarren. Currículuna bidali: eibar-kafe@gmail.com
- Ilea-paintzailea behar da. Esperientzia baloratuko da. Tel. 943254776.
- Kamarera/o euskalduna behar da Eibarko taberna batean. Tel. 661955980.
- Lan egiteko honako hiru perfilak behar ditugu. Ezagutza informatikoak dituen (net, Java, Python eta Redes lengoaietan aditua), elektromekanikan aritua eta, azkenik, komertzial bezala. Bidali curriculumak: urkotronik@urkotronik.com. Berehala hasteko moduan.
- Estetizista behar da Eibarko ilea-paindegi baterako. Esperientziarekin. Lan giro bikaina. Tel. 943208125 eta 678674250.
- Modeloa behar da (mutila/neska) Giza Irudiaren marrazki klaseetarako. Tel. 622053933. Maita.
- Ilea-paindegiarako ofiziala behar da Elgoibarko ilea-paindegi batean. Jornada osorako. Berehala hasteko. Tel. 943246225.
- Langilea behar da Eibarko harategi batean. Currículuma bidali: eibarharategia@gmail.com

## 5. IRAKASKUNTZA

### 5.2.. Eskaintzak

- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab. eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677592509. Alberto.

## 6. DENETARIK

### 6.1. Salgai

- Seta M tamainako bi neopreno, C-skina markakoak salgai. 619673058. Gorka.
- 20 kaxa White detergente salgai, elikagaien industriarako eta osasun arloetarako egokia den detergente profesionala, edozein motatako orbanak kentzeko bikaina. 619673058. Gorka.



**688 62 76 89**  
publizitatea@etakitto.eus



Calbeton, 6

# Kaskar

Ginorik **20.** onenean  
**urteurrena**

ESKERRIK ASKO GUZTIOI

LASTER

## GIDA 2022

AUKERARIK  
**ONENA**  
Zure **enpresa,**  
**komertzio** edo  
**zerbitzua**  
erakusteko



#EibarrenBadakagu



# ek!

[publizitatea@etakitto.eus](mailto:publizitatea@etakitto.eus)  
943 20 67 76 - 688 62 15 35





# IRAZABAL

## clínica dental



**Ainhoa Zulueta**  
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.  
Euskal Herriko Unibertsitatea.  
Unibertsitate Adtua Aho Kirurgian,  
Periodontzian, Implantologian.  
Leongo Unibertsitatea.  
Diplomatua Aho Kirurgian.  
Bartzelonako Unibertsitatea.  
Hortz-Estetikan Diplomatua.  
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean.  
Hortz-Estetikan Diplomatua.  
Autran Institutua. Bartzelona.  
Etengabeko Formakuntza.  
New York-eko Unibertsitatea.  
Oklusioan Graduondoa.  
Anibal Alonso Doktorea.


Astelehenetik ostiralera:  
**8:00**etatik **22:00**etara  
Zapatuetan:  
**10:00**etatik **14:00**etara

# Irribarreetan adituak

## Etor zaitez gu ezagutzera

Zure beharretara egokitutako finantziazio-planak

JARRAI IEZAGUZU

 Facebooken: Clínica Dental Irazabal [www.clinicairazabal.com](http://www.clinicairazabal.com)



**IRAZABAL**  
clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1 esk. - **20600 EIBAR**  
Tel.: 943 20 85 52 - [www.clinicairazabal.com](http://www.clinicairazabal.com)